

ERLIJIOSOEN SANTUTEGI BATEKO EKONOMI EREDUAK

JATORRIZKO IDEIAK, ETA XX. MENDEKO ARANTZAZU

Joseba INTXAUSTI

Arantzazuko Komentua eta fraideak, bertan lagunartea sortu zenetik bertatik, eguneroko jatenaren, jantzi-beharraren edo osasuna zaintzeko premiaren legeak lotu izan ditu. Beste edozein gizaki eta gizatalde bezala. Noiznahi eta nonahiko erlijioso-bizitzak ere ez du izan premiatusun horretatik ihes egiterik. Besteak beste, egoera ekonomikoak ere baldintzatu du, eta ez gutxi, Arantzazuko fraideen bizitza.

Erlijioso-bizitzaren historian, hori horrelaxe izan da beti, baita bakardade osoan bizi izan ziren Egiptoko eremiten artean ere. Hauek, nekazariei lagunduz, baratze txiki bat landuz, saski, soka eta zerriak eginez, edo eskuizkribuak idatziz bizi izan ziren (San Antonio, her. 356).

Jabetasunaren arazoa, ondasunen erabilera, lanaren lekua eta limosnaren aukera, hasiera haieran eta beti gogoan izan ditu eremita bakartiak eta lagunartean bizi beharko zuen kenobita edo monjeak. Eta honek batik bat, zeren taldean bizitzeak denen arteko elkartasun ekonomikoa are beharrezkoago egiten baitzuen.

Alde ekonomiko hau oso agerian dago Arantzazuko Fraideartean lehen garaian ere (c. 1501),

izan ere teorian bederen erabat pobre izan behar zuen Obserbantziko frantziskotar-talde hark eragozpen edo ezin larriak aurkitu baitzituen Aloñapeko mendiarte hartan. Pobretasunaren biziera praktikoa Arantzazun nolakoa izan zitekeen eztabaidatu zuten orduan Probintziako fraideek.

Ikuspegi horretatik, bideragarritasun zailekoa gertatu zen Santutegiko Komentua. Izan ere, kontu egin behar da ordurako eliz tradizioan eta frantziskotarrenean ibilera luzea beteta zeudela Ordena Erlijiosoak, ekonomia erlijioso pobreaken eremu honetan, eta kasu jakin batzuetan errealtate elkorrak ez baitzuen laguntzen Ordenak amestutako utopia bizi-mamitzen.

1. MONJE ETA KALONJE ERREGULARRAK (V-XII. MENDEAK)

Lagunartetan eratutako erlijiosoen erakunde guztiek ekonomiaren arazoari nahitaez erantzun behar izan diote: jasotako ondasunak nola gorde, berriak nola ekoiztu, eta dena nola erabil, bana eta goberna asmatu behar izan dute Ordena erlijiosoei¹.

¹ MENAPACE, M. (1965): "Notas sobre el trabajo manual en la espiritualidad del monacato primitivo", in: *Yermo* 3, 1965, 113-126. PEREZ DE LABORDA, M. (1965): "Trabajo y caridad. Un aspecto poco conocido del monacato antiguo", in: *Yermo*, 3, 1965, 127-152. Dena den, monakismoaren barruan ez zen falta izan lanaren kontrako jarrerarik, Sirian batez ere, lanean jarduteak buruhausteak ekar omen zitzaizkelako eta oroitz-bizitza eragotzi: COLOMBAS, G. M. (1998): *El monacato primitivo*. Madrid: (BAC. 588). 144.

1.1. EKIALDEAN: SAN PAKOMIO, SAN BASILIO.

Kenobitismoak Egipton erlijioso-lagunarteak sortu zituenean, San Pakomiok proposatutako bizi-proiektuan historialariek haren "lan-plangintza originala eta hark monjeei eman zien ekonomi zuzendaritzaren molde berria" aipatu izan dituzte ekarpen behinenak bezala².

Aldi bertsuan, Asia Txikian ere beste monasterio-esperientzia batekin topo egiten dugu, San Basiliok (330-378) arautuarekin. Erregela bat baino gehiago idatzi zituen San Basiliok, eta berorietan ere zer-nolakotzen da lanaren mundua. Kenobitismoaren historialariek diotenez, "otoitzaren ondoan esku-lana da monjeak gorde behar duen lege-betetzearen zutabe nagusietako bat": San Basilioren kasuan, norberaren mantenurako baino lagun hurkoaren onetan egin behar da lan, karitatezko zerbitzu bezala. Monjearen pobretasunaren alde ere bada hori, noski³.

Egipto, Siria eta Asia Txikian jaio zen, funtsean, erlijioso-elkarteetako ekonomi munduaren lehen eredu kristaua, gero Mendebaldeko Ordenentzat ere imitagarri gertatuko zena.

1.2. MENDEBALDEAN: AGUSTIN ETA BENITO

Mendebalde honetan (Afrikan bezala Italian), Agustín eta Benito fundatzaileen kezketako bat pobretasunarena (beraz, ekonomiarena) izan zen, erlijiosoaren lagunarteko bizitza eratu nahi izan zutenean. Ebanjelioak eskatzen zuen pobretasuna funtsezko oinarri batek (norberaren desjabetzak) eta hiru zutabe praktikok ahalbidera zezaketen monasterioan: ondasunen erabilpen amankomun kontrolatuak, norberaren lan-ogibideak (lanak) eta fededunen eskuzabaltasunak (limosnak). Horrela eraiki nahi zen monasterioko ekonomia pobrea.

1.2.1. San Agustín Hiponakoa (354-430)

Ezaguna da, Hiponako elizgizonen batek, emandako hitzaren kontra, bere ondasunak gorde egin zituela jakitean, Agustínek nolako haserrea erakutsi zuen⁴.

Bestalde, San Agustín-ek espreski idatzi zuen *De opere monachorum* deritzan idazlana, monjeek gogoan izan behar zituzten lan-eginkizunaren premia eta balio kristaua azpimarratzeko, "horrela ez baitute janaria eta jantzia inorengandik hartu behar", izan ere "Jainkoaren zerbitzariak" (*servus Dei*) eta apostoluak –San Paulen etsenpluari jarraituz– arrotz, igeltsero, jostun, nekazari gisara eta mota ezberdinetako lanbidetan irabazi behar baititu ogia eta jantzia⁵.

Eta, horren ondoan, limosnari ere bere lekua aitortzen zion San Agustínek apostolu eta zerbitzariaren bizitzan⁶. Kalonje erlijiosoaren Erregelak, bere 3-7. pasarteetan arautu zuen ondasunekiko Agustínen pentsamendua⁷.

1.2.2. San Benito Nursiakoa (480-547)

Erdi Aroan zabalduena izan zen bigarren Erregela handian, San Benitoren ondoan alegia, monjearen pobretasuna behin eta berriz ageri zaigu: 33. atalburuak indar handiz baieztatuta utzi zuen desjabetasunarena, eta lanarekikoa 48. atalburuan arautu zen. Orixeren itzulpenetik egokituta dakargu jabetasunari dagokion hau hona⁸:

EA ANAIEK GAUZARIK BERENIK EDUKI DEZAKETEN.

Oker hau erauzi behar da batez ere zeharo elkartegian: ez dadila inor ausart, ez eman ez hartu egitera Abadearen agindua gabe. Ez eta ezertxo ere bere bezala edukitzera, ez libururik, ez paperik, ez lumarik, ezta ezertxo ere: ez baitzaio zilegi ez bere gorputza ez bere gogoa nabierara edukitzea, behar duen guztia elkartegiko Aitarengandik izango duen itxaropenez; eta ez bedi zilegi ezer edukitzea Abadeak eman edo utzi ez badio.

"Guztia guztien bedi" idatzita dagoenez, ez beza inork esan bererik duenik, baina norbait aurkituko balitz erru itsusi honekin atsegin hartzen duenik, adiera bekio behin eta berriz. Zentzutzen ez bada, bego Erregela-zigorren menpe.

Jabetasunarena horrela dela, lanari arreta berezia emango zaio San Benitoren Erregelari: "ora et labora" da beneditarren goiburua. Esan bezala,

² Colombás 1998: 79, 109.

³ Colombás 1998: 197. Garaiko monjeen izpiritualitatean pobretasunak eta lanak izan zuten lekua ezagutzeko: Colombás 1998: 545-555, 585-591.

⁴ BROWN, P. (2001): *Agustín de Hipona*. Madrid: Acento Editorial. 425-426.

⁵ SAN AGUSTIN (1954): *Obras completas de San Agustín*. T. XII: *Tratados morales*. Madrid: BAC. 701, 723.

⁶ Id., ib. 727.

⁷ Ik. MARIE-ANCILLA, Soeur (1996): *La Règle de Saint Augustin*. Paris: Cerf. 20-20. Eta Lagunarteko ekonomia horretarako irizpideen azalpena: 155-183.

⁸ (1980): *Benito Santua. Bizitza eta Erregela*. Lazkao: Beneditarrak. 189. Ik., gainera, COLOMBAS, G. M.; ARANGUREN, I. (1993): *La Regla de San Benito*. Madrid: BAC. Testua, 127-128, eta iruzkina, 414-445.

Erregelako 48. atalburuan dago “eguneroko esku-lanari” dagokiona⁹:

Alferkeria arimaren etsaia da, eta horregatik Anaiek aldiz-aldiz esku-lanari ekin behar diote, eta aldiz-aldiz jainkozko irakurtzeari. Beraz, bietarako aukera honela ipini behar dela uste du-gu: hau da, Pazkotik urriaren lehenera, goizean leben-ordua esanda ia laugarren orduraino egin bedi esku-lana behar den hartan. Laugarren ordutik seigarrenera hurbil, irakurketa egin be-di. Seigarren orduaz gero mabaitik jaikitzean, atsedean bezate beren ohetan isiltasun osoan, edo norbaitek irakurri nahi balu, beretzat bakarra irakur beza, besterik ez nekarazteko. Eta bedera-tzigarren ordua lehentxeago esan bedi zortziga-rren ordu erdi aldera, eta egin bezate berriro be-har den lana arratsalderaino. Baina tokiko be-barrak edo eskasiak eskatzen badu, uzta biltzen anaiak berak ari daitezen, ez bitez ikaratu: or-duan baitira egiazko monje beren esku-lanetik bizitzean, gure Gurasoak eta Apostoluak bezala.

Era bertsuan arautu zituen San Benitok urteko beste sasoietakako ordutegiak ere, urritik Garizuma-rakoa eta Garizumakoa bertakoa. Horrela, bada, lan-ak bere toki finkoa zuen monjeen ordutegi-egute-gietan, eta monasterio-sarea beneditartuz joan zen heinean, irizpide eta arau hauek moldatu zuten Mendebaldeko monjeen lan-bizitza. Erdi Aroko er-lijioso beneditarren bizi-ordutegia honela zegoen banatuta¹⁰:

Monasterioko egunaldiaren ardatzak eguerdiko jatordua eta irakurketari eskainitako denbora nagusia dira. Urteko edozein arotan ere, jatordu aurretik monjeak bizpahiru orduko irakurketa-segida izateko moduan dago eratuta. Gainerako denbora lanean ematen dute: zazpi ordu ja-rraian neguan bezala Garizuman ere (Ofizioko otoitzaldi laburrek mozten zuten hori), eta sei ordu eta erdi udan, ordurik beroeneko jarduna irakurketak, jatorduak eta siestak bitan banatzen dutela.

Sistema beneditarrak, bada, ondasunak aman-komuntasunean onartu zituen: monjeak ez zeukan

deus bererik, denak denena izan behar zuen, eta ondasunen erabilera bakarra Abadearen esan eta erabakietara zegoen. Hala ere, monasterioak bere funtsezko ondasunak zituen, jabetasun osoan zi-tuenak. Ondasun horiekin eta lanaren gain eraiki ohi zen monasterioaren ondarea.

1.2.3. Penintsula Iberiarrean

Penintsula Iberiarreko lehen Erdi Aro hartan (mundu bisigotutarrak ari gara orain) monasterioek Erregela ezberdinak izan zituzten, hemen ere batez ere XI. mendetik aurrera Erregela beneditarra eza-rriz zitzairen arte. San Leandro (580aren inguruetan) eta San Isidoro-renak (619a aurretik), eta gehien hedatutako Braga-ko San Fruktuosorena (646 ingu-ruan) aipa ditzakegu hemen. Guztiek ezartzen di-tuzte beren irizpideak ondasunen gobernurako, eta baita monjeen lanarekikoak ere¹¹.

Erregela horien arrastoan eta bilakaera sozio-ekonomikoaren ondorioz, Institutu Erlijosoen eko-nomiak bere alde on eta eskasagoak erakutsi zituen ondoko mendeetan. Institutuen historia eko-nomiko orokor bat bere heldutasun puntura iritsi ez bada ere¹², historia horretan ezagugarri zenbait gogora daiteke hemen, bere orokortasunean.

Komunitate erlijiosoetako ekonomia, giza lagu-narte horien izaerak baldintzatuta dago halabeha-rrez, eta gogoan hartzekoak dira baldintza sozial horiek, monasterio eta komentuetako ekonomia bera ulertzeko: izan ere, monjeak ezkongabeak dira, oro har beren lanean autarkia ekonomikoa bi-latzera jotzen dute, eta goza ditzaketen ondasunen erabilera pobretasunaren arauaz neurtua da. Horre-la, ezarian-ezarian aberastuz doa monasterioa, on-dasunak metatzean. Bestalde, monjeek berek sor dezaketen aberastasunaren gain, ongilean dohain-tzak datoz, gainera.

Hainbat monasterioren aberastea, bada, begi-bistakoa da, joeraz eta gertatzez. Horregatik, Or-dena Erlijosoen aldika-aldika “Erreformatak” behar izan dituzte, lehenik Ordenaren beraren barruan, eta inoiz Adar Erreformatu berriak sortuz (benedi-tarren artean klunitarrak zisterar egin ziren,

⁹ Aurrekoa bi argitalpenetan: *Benito Santua* 1980: 219; Colombás/Aranguren 1993: testua 147-148, iruzkina 372-392. Ik. DU ROY, O. (1970): “*Tunc vere monachi sunt. À propos du chapitre XLVIII de la Regula Benedicti*”, in: *Revue Bénédictine*. LXXX, 1970, 300-304.

¹⁰ Colombás/Aranguren 1993: 392.

¹¹ Ik. CAMPOS RUIZ, J.; ROCA MELLA, I. (1971): *Santos Padres Españoles: II. San Leandro, San Isidoro, San Fructuoso. Reglas monásticas de la España visigoda. Los tres libros de las Sentencias*. Madrid: BAC (321). 63-64, 70-71, 97-100, 119, 143-145, 203-204.

¹² Sintesi on batean, horrelako hurbilpen estimagarri eta argia, autore ezberdinek oratua (H. M. Biedermann, J. Leclercq, E. Werner, I. Omaetxebarria, A. Duval, G. Rocca), s. v. “Economia”, in: *Dizionario degli Istituti di Perfezione (DIP)*: Roma), 1011-1049. Ik., gainera, hiztegi berean: “Lavoro” eta “Povertà”. Eta ik. *Dict. de Spiritualité* hiztegian: s. v. “Pauvreté chrétienne” eta “Travail” (XII, 613-697; XV, 1186-1250).

Eskekoetan komentutarrak Obserbantziara pasa, etab.). Bestalde, mendetan metaturiko aberastasunen inguruan eztabaidak eta borroka politikoa sortu izan dira, XIX. mendeko Desamortizaziora iritsi arte.

Arrisku eta historia horretaz ohartuta, ondasunen jabetasuna ez ezik, erabilpen-modua arautzea ere arretaz begiratu izan zituzten fundatzaileek eta Ordenetako legeek: sobera zena, azken finean behartsuena zela (*patrimonium pauperum*) esango zen, ez monjeena. Definizio horretatik egintzetara, orde, alderik franko egon zitekeen, eta hor egon zen sarritan egoeraren gakoa¹³. Hain zuzen, Lehen Erdi Aroko esperientzia haren ondoren etorri ziren molde berriko Erljiioso-Erakundeak.

Hamahirugarren mendeko Ordena berriek beren buruak eskeko bezala definitu eta Elizak horrela ontzat eman zituenetik, Fraidearten ekonomia bestelako modu batean eratu behar izan zen. Horren adibiderik argien eta errotikoena frantziskotarra gertatu zen berehala.

2. EKONOMIA, FRANTZISKOTARREN ERAKUNDE ETA BIZITZAN

Aberatsak eta pobreak, ondasunak eta gabezia: horiek guztiekiko esanak eta keinuak izan zituen Jesus Nazaretekoak. Ebanjelioak beteta daude aberastan/pobreziarekiko iritzi, esan, laudorio edo epaiez. Tradizio kristauen ere mendeak zehar bizirik iraun dute Jesusen bizitzako albiste horiek.

2.1. ESKEKO ORDENAK

“POBRE KRISTAUEN TALDEEN” ARTEAN

Eliz erakundeen aldetik, pentsamendu teologikotik nahiz mugimendu sozial kristauen historiatik biziki interesgarria den ibilera izan du ekonomiari begiratzen dion arazo honek¹⁴. Eskeko Ordenak jaio baino lehen ere, egon zen pobretasun ebanjelikoa segitu nahirik talde-pobreziak eratutako erlijoso-elkarterik (adibidez, Grandmont, 1076). Ondasunekiko pentsamolde berri bat ari zen indartzen Elizan, eta Eliza kanpotik, XII. mendean.

Eliza barneko ezinegonen artean eta heretiko eta heresiek inguraturik jaio ziren Eskeko Ordenak eta bereziki mugimendu eta Ordena frantziskorrak. Aldi berean, Elizako hainbat laiko herritarrek kristautasun ebanjeliotarraren zantzuak biziberriturik ikusi nahi zituen, pobretasunaren balioa berreskuratu, horrela ebanjeliotasun jatorrago baten bidetik Eliza bera ere erreformatuko zelakoan.

“Lyongo Pobreen” (=valdotarren) eta “Lonbar-diako Pobreen” lehen eskakizunetako bat izan zen pobretasunaren molde horrena. Laikoen mugimendu hauek, Hierarkiarekiko zenbait hurbilketa ondoan, ez zuten lortu, azkenik, Elizaren onarpena, eta errotiko pobretasunaren aldeko Botere Publikoek bortizki erasotako sekta bilakatu ziren. Hain zuzen, Frantzisko Asiskoaren jaioturtean kondenuatu zituen Luzio III.a Aita Santuak valdotarrak (1182)¹⁵.

Heresien erronka hori ez zen doktrinari zegokiona bakarrik; aitzitik, eliz eta gizarte-antolamenduei ere aurrez aurre eraso ziezaikeen indarra zen. Elizak bezala, Botere Publikoek aintzakotzat hartu behar zutena. Inkisizioaren jaiotzak (1231) eta XIII. mende osoko heretikoaren kontrako gerrateak horixe da azpimarratzen digutena (1208-1243)¹⁶. Amets, kezka eta gatazka horien barnean dago San Frantzisko eta beronek sustatutako mugimendua¹⁷.

2.2. FRANTZISKO, BEHARTSUA ARTEKO BEHARTSUA

Legenardun pobreak izan ziren Frantziskoren “konbertsioan” lehenengo protagonistak: haiekiko errukizko obrek aldarazi zizkieten asistar gazteari bere bizi-balioak. Bihotz-samurtasun hau garaiko erlijio-berritasunen artean zegoen zerbait zen, XII-XIII. mende-tarteko pasaera hartan, eta ez ziren gutxi izan orduan errukizko ongiegiteak ez ezik areagoko *conversatio inter pauperes* bat bilatu zutenak, hau da, pobre eta utzienekin berdintasuneko anaia-elkarrizketa hobetsi zutenak, beren eguneroko biziera osorik eta barrutik aldatzeraino¹⁸.

Nahitaez, berriro ere pobretasunaren arazoa eta ekonomia proiektu erlijioso berriaren bihotzean agertzen zaizkigu, orain errotikotasun osoarekin.

¹³ Ik. Aipatu hiztegiak (*DIP*): “Beni religiosi” eta “Beni del religioso”.

¹⁴ Historia horren gidoi argigarria ikus daiteke liburu onetan: CHRISTOPHE, P. (1985): *Les pauvres et la pauvreté*. Paris: Desclée. Bi liburuki.

¹⁵ Christophe 1985: 99.

¹⁶ Erdi Aroko heresien historia llabur eguneratua: ZERNER, M. (1999): “Hérésie”, in: LE GOFF, J.; SCHMITT, J.C. (1999): *Dictionnaire raisonné de l'Occident médiéval*. Paris: Fayard. 465-482.

¹⁷ MERLO, G. G. (1999): “Historia del Hermano Francisco y de la Orden de los Menores”, in: ALBERZONI, et al. (1999): *Francisco de Asís y el primer siglo de historia franciscana*. Arantzazu: Ed. Franciscana Arantzazu. 3-5.

¹⁸ Merlo 1999: 6-7.

Besteak beste, horixe izango da ondoko hamarkada eta mendeetan Erreforma frantziskotar ezberdina abiarazi zituen arrazoi eragileetako bat, Anaien eta Ordenaren pobrezia.

San Frantzisko Asiskoa "il Poverello" bezala gogoratu izan dute historiak ez ezik, olertiak eta arteak ere. Eta Italiako lehen Ernazimendu frantziskotarrak "Dama Pobreziarekin" ezkondurik aurkeztu zuen Frantzisko; gure artean, Aranoa margolariak ere gogorarazi zigun hori, Asisko Gotzainaren aurrean biluzik agertu eta aitaren ondasunei uko egin zieneko hura margotzean (Donostia-Egiako frantziskotarren elizan, 1931).

2.3. TXIROTASUN FRANTZISKOTARRAREN ESKAKIZUNAK

Inozentzio III.a Aita Santuak ahoz onartutako bizi-arautegian (1209) bezala hurrengo bi Erregelatan (1221, 1223) pobretasunaren lelo hau behin eta berriz errepikaturik ageri zaigu San Frantziskoren biografian. Alde horretatik, fraidetzari ekiteko, ongi erabakia izan behar zuen fraidegaiaren jarrerak (1R 2):

Baldin, Jainkoak argiturik, norbait bizimodu hau hartu nabiz gure fraideetara baletor, harre-ra gozatsua egin biezaiote; eta bere asmoan sendo irauten badu, begira bezate ondo fraideek ez daitezela baren arazo tenporaletan sar, baizik eta eraman bezate lebenbaitlehen beren Ministroarengana. Eta Ministroak egin biezaiote harre-ra on, eta alai beza, eta eman biezaiote osoki eta argi gure bizieraren berri. Eta [...] sal bitza bere ondasun guztiak eta behartsuei ematen saia bedi. Eta begira bezate fraideek eta hauen Ministroek ez daitezela eginkizun horretan sar, ez eta dirurik har ere, nabiz berenez, nabiz beste inoren bitartez; baina zerbaiten beharrean baleude fraideak, har lezakete beste behartsuek bezala, behar duten hura, dirurik ez, ordea.

Fundatzailearen biografoek –honetan Santuarekiko ikusera estuena izan zezaketenek, baina baita Celano edo Bonaventura idazle ofizialek– berresten digute asistarraren mezu hori, pobretasun pertsonalaren ondoan, guztien Anaiarte eta Erakundearena ere halakoxea izan zedila eskatuz¹⁹:

...eta eraikiko zituzten etxeak apalak eta pobreen antzekoak izan zitezela erakusten zien Anaiei; ez zitzatela har, gainera, berenak bailiran, apopilo bezala baizik, beren buruak "erromes eta pasera" bezala begiratu, izan ere erromesen izaera baita, zioen, inoren etxean hartua izatea, aberria subarki desiratzea eta leku batetik bestera bakean iragatea.

Fraideen etxeetan –baitaz jabe egin zirelako edo bertako arranditasunagatik– pobretasun ebanjelistarraren aurkako zerbait ikusten zuenean, jasotako etxe haiek, eraisteko eta uzteko agintzen zien Anaiei batzutan. Pobretasun hura Ordenaren oinarria zela esan obi zuen, eta Anaiartearen egitura osoa funtsean bertute horren gain zutikatzen zela; baina, pobretasunaren oinarria zartatzen baldin bazen, Ordenako eraikina erabat hondoratuko zela.

Frantziskotarren pobretasunaren historiak gora-behera eta aldarte handiak ezagutu ditu, izan ere iturrietan alde batetik San Frantziskoren *Hilburuko* hitzak eta izpiritua zeuden eta, bestetik, Elizako Ordena handi batek zituen lan eta bizitzarako premiak. Ez zen erraza bi aldeak aldi berean zaintzea eta jatorrizko karismarekin osorik leial izatea. Beti zegoen bizirik, historiako edozein unetan ere, San Frantziskok bere Hilburukoan fraideei gogorazten ziena (T 16-17, 19-22):

Eta biziera hau hartzera zetozenek, izan zezaketen gauza oro, pobreei partitu obi zieten. Eta pozik izaten ginen tunika bakarraz, barne eta kanpotik adabatua (bala nahi zutenak), soka eta galtzekin, eta beste ezer ez genuen eduki nahi.[...]. Eta nik neure eskuez lan egiten nuen, eta egin nahi dut; eta beste Anaia guztiak errime nahi dut lan on batean saia daitezen; eta ez daitenek, ikas bezate, ez lan-saria jasotzeko gutiziagatik, baizik eta etsenplu ona eman eta alferkeria haizatzeagatik. Eta lan-saria emango ez baligute, jo dezagun Jaunaren mahaia, atez ate limosna eskatuz.

2.4. "GURE ORDENAK EZ DU INOLAKO JABETASUNIK..."

Ez da harrizkoa, XX. mendeko atari-atarian Leon XIII.a Aita Santuak, Ordena izanberritzean emandako Konstituzioetan (1897), betiko mezua eta legea errepikatu izana (255. art.):

Gure Ordenak ez du inolako jabetasunik, ez partikularzki, ez amankomunean ere; horregatik, eskekoak izan behar dugu, eta debekatuta dauzkagu ondasun tenporalei dagozkien egite juridikoak.

Data hartatik hona, Konstituzioetako artikuluetan beti jaso izan da pobretasunaren xede hori (1903, 1913, 1927, 1953).

Jabetasunaren eta berorren ondoriozko ekintza juridiko eta praktikoen ukapen honek, ordea, ez du ekarri, beste gabe, Ordenak ondasunik bere eskuetan ez izatea. Ordenak eta fraideek ez dute

¹⁹ San Bonaventuraren *Legenda Maior* 7, 2.

izan eskubidezko jabetzarik eta ondasunik, baina (Egoitza Santuak egindako Erregela-azalpenen araberaren eta emandako erabaki juridikoen ondorioz) jabetasuna Egoitza harena da, eta gozamina eta erabilera Ordenari eta fraideei utzita daude.

Horiek horrela, ezin da ahantzi –San Frantziskoren biografo moderno on batekin esateko– “pobretasun frantziskotarrak” balio aszetiko eta testigutzakoa ez ezik elkartasunezko balio soziala ere zaindu nahi zuela bere jatorrian: “giza senidetasunaren aldeko ahalegina zen, norberarengandik hasi eta kristauarte osoa besarkatu nahi zuena, berorren baitan maila ezberdinetan eta sakonki eragin nahi zuen eginahala, Kristogan senidetasun berri bat sortzeraino”²⁰.

Pobretasun-molde horrek, gizartean baztertasun batean jartzen zituen fraideak, gizarte-sistemako ahulenen artean, lan pertsonalaren bidez Probidentziaren eskuetan, ondasun-trukaketaren aldarteen artean (limosna), lege eta eskubidezko eskakizunetatik kanpo eta gizakien arteko elkartasun/urruntasun unibertsalaren menpe.

Errotiko hautapen hori berriro birpentsatua eta landua izan da XX. mendean, bi argibide nagusien argitan: 1) Iturri frantziskotarren ezagutza berrien argitan, eta 2) Kontzilioak aldarrikatutako eliz eta Institutu Erlijosoen proiektu berrituaren barnean. 1997-2003.etan Ordenak dituen lehetasunen artean dago pobretasuna (gainerako lehetasun hautatuak zerak dira: otoitza, Anaiarteko bizitza, txikitasuna, ebanjelioingintza, heziketa)²¹:

Probintziek bila ditzatela ondasunez desjabetzeko eta behartsuenekin elkartasunean lotzeko modu zehatz eta eraginkorrak, borrela, garena eta daukaguna pobreekin banatu abal izateko [...].

Abal duten neurrian, Anaiek bizi bitzate pobreen eta baztertuen bizimodua, historia eta itxaropenak, pobreek berek ere ebanjeliza ditzaten [Anaiak].

3. EUSKAL PROBINTZIA ETA KOMENTUETAKO ADMINISTRAZIO POBREA

Ordenako tradizio hori Euskal Herriko fraideek ere jaso zuten noski, bai Kantabriako Probintzia zaharrean (1551-1840), bai geroztik (1859...). Garaiko egoera instituzionalaren barnean, *Estatutos*

Municipales deituetan (1719), hainbat artikuluz zegoen ekonomia eta pobretasun frantziskotarrak zaindu nahi zituena.

3.1. ZER IKASTEN ZUTEN FRAIDEGAIEK?

Hemengo hezkuntzan pobretasunaren mezua fraidegaiei Probintzia zaharreko testuez baliatuz pasako zaie, Probintziaren izanberritzearen ondoren ere, “Que los frailes no se apropien de cosa alguna para sí, ni en común ni en particular”, dio Aita Pablo Zurbanok (1795) Nobizioentzako bere liburuxkan²².

— *¿A qué nos obliga este precepto?*

— *A la virtud heroica de la pobreza voluntaria y evangélica, renunciando en común y en particular todo cuanto posee el mundo.*

— *¿Qué acciones nos prohíbe nuestra estrechísima pobreza?*

— *Las cinco siguientes: es a saber, el dominio, la posesión, la propiedad, el usufructo y el uso de derecho; y así de todo esto somos incapaces los Frailes Menores, en virtud de la regla que profesamos. [...]*

— *¿Quién peca contra este precepto?*

El religioso que tiene alguna cosa como propia suya, o el que da cosa de valor sin licencia del Prelado, o el que la compra o vende con propia autoridad, o ejercita alguna de las cinco acciones dichas.

Hastapen teorikoak definiturik zeuden; arazoa, ordea, ez zen hori bakarrik, bizitza praktikoari emango zitzaizkion erantzunak baizik. XIX. mendeko azken partean, Errestaurazio edo Izanberritzeari ekitean bizi izandako Desamortizazio ezberdinen oroitzapena guztien oroimenean zegoen. Iparraldean ere, 1791, 1880 edo 1903etako Legeen ondorioak ezagunak zituzten: agerian zegoen, bada, gutxienez Desamortizazio-aurreko egoera juridikoaren segurtasunera itzuli beharra, ondasunak, jabetasunarekin edo gabe, Erakundearen zerbitzuan berreskuratzeko premia.

3.2. EKONOMIA IZANBERRITUA ANTOLATZEN (1876...)

Izanberrikuntzaren bigarren aldia (1876...), sistema kanobistaren barnean ez zen bereziki zaila gertatu Komentu berriak irekitzeko baimen ofizialak lortzea: Zarautz, 1876; Arantzazu, 1878; Olite/

²⁰ MANSSELLI, R. (1997): *Vida de San Francisco de Asís*. Arantzazu: EFA. 90.

²¹ CURIA GENERAL OFM (1998): *Prioridades para el sexenio 1997-2003*. Roma/Madrid: Confres. 18.

²² ZURBANO, P. de [1918]: *Breve explicación de la regla de Ntro. Padre S. Francisco...* Tafalla: Impr. de Domingo Albéniz. (Ed. refundida por J. R. Zulaika). 34-35.

Erriberri, 1880. Baina ez zen erraztasun bera aurkitu Komentu zaharretako ondasunak eskuratzeko edo lehenagoko segurtasun juridiko zibilak ziurtatzeko. Ireki zen Etxe bakoitzaren inguruan, eta Probintzia Erlijioso osoan, egin behar izan ziren horretarako ahaleginak.

Euskal Herriko Komisari barrutia "Probintzia" bihurturik bere osotasun jurikora iristeko bezperan, Erromako baimenarekin ondasunak Probintziako fraide baten izenpean jartzea erabaki zen; fraide hautatu hori zera izango zen: "como propietario de las huertas y demás que pertenecen a nuestros conventos" (1885eko apirilean)²³. Ondoko urteetan jabetasun orokor hori legeztatu zitzaizen fraide jakin batzuk ezagunak ditugu: J. J. Maiz (1894, 1899, 1913), gerora Probintzial izandako E. Mz. de Zuatzto (1907, 1908) eta besteak: J. L. Alberdi (1915), D. Aranguena (1916) edo A. Rekondo, etab. Dena den, eliz kodearen aldetik, ondasunen azken jabetza Erroma edo Egoitza Santuarena zen berriz ere. Ez dago, bada, zalantzarik frantziskotarren jabetasun-sistema zaharretara itzuli zirela, printzipioetan utopiara (=Ordenako erakundeak ere ez zuela jabetzarik izango) baina gertatzez eta egitez Erakundeak nahitaezkoak zituen irtenbide praktikoko segurtatuak (=Egoitza Santuak zuen jabetza juridikoa, eta, hark lagata, Ordenak erabilpen-eskubidea).

Horrela, jabetasun juridikorik ezak ez zien kentzen ondasunik fraide frantziskotarrei, baina erabileran pobrezia arauen barruan jokatu behar zuten Ordenak eta fraideek. Izaera juridiko horri zehar egoera-segurtasunak ez zion leihorik ireki behar zabarkeriari: fraidearen bizierak laztasuna eta pobrezia ispilatu behar zituen. Adibide bitxi bat hona ekarri, gogoraz daiteke, 1878an patrikako erlojuek, esaten zenez, alde txar asko zituzten: "poco conforme con la santa pobreza, causa muchas veces de vanidad en los que los usan y de escándalo en los que los ven". Hala zen, nonbait, zeren eta, 1886an, ohitura horren kontrako iritzia eman ez zik debekatu egin baitziren erlojuak²⁴.

3.3. UTOPIAREN ETA ERREALITATEEN ARTEAN

Pobrezia frantziskotarraren barnean, Erregelatik bertatik espreski debekatuta egon den usadioetako bat diru-erabilpenarena izan da beti. Hain zen hau debeku hertsia, ze limosna eskatzean ere ez baitzen dirurik jasotzen, eta norberaren diru-erabilpenarako, besterik ezinean, baimen bereziak eskatu behar izan ziren Erromara XX. mendean, beti urte-

kopuru jakin baterako emanak izan ohi zirenak ("Indulto para el uso de la pecunia" deitzen ziren haiek).

Diruaren honetan, lehenengo indultuak Komentuetako Sindikari deituentzat eskatu ziren (1875) eta berehala gainerako fraideek bizitza arruntean izan zitzaizketen premietarako, bidaietarako adibidez (1883...). XX. mendean behin eta berriz berri-itu ziren indultu hauek (1918, 1922, etab.).

Nahiko berandura arte, diru-erabilpenaren alde juridikoa arduraz begiratu izan dute Ordenako Nagusiek. Esate baterako, Penintsulako Ministro Probintzialen 1959ko arauetan zera idatzi zen²⁵:

2º Que reconoce ser esta cuestión de la Pobreza y manejo del dinero de capital interés, ya que es característica de la Orden la imitación de Jesucristo, que por nosotros se hizo pobre [...]; y, por lo mismo, lo que nos distingue de las demás Ordenes e Institutos Religiosos ha de ser una más estrecha práctica de la Pobreza [...].

4º Que en lo referente al manejo del dinero, atendidas las circunstancias de tiempo y lugar, ya no se puede prescindir del mismo, como en tiempos no lejanos lo conocimos [...].

5º Que en el manejo del dinero [...] se requiere siempre el permiso del superior, a quien compete el juzgar las causas o circunstancias que justifiquen el tal manejo; y por lo mismo obliga en conciencia su dictamen.

Diruarenean bezala orokorki ondasunen erabilpenean ere tradizio-segida bera ikus daiteke 1971n Anaia Karlos Gastesik prestatuturiko *Notas sobre la administración de los bienes en la Provincia de Cantabria* arauetan (Oñati: EFA). Fraide Sindikariaren ardurapean egon da Komentuetako ondasunen administrazioa Izanberrikuntzatik hona, aipatutako indultuak lortu zirenetik, diru eta abarretan; hori bai, berorren gain egon den agintariaren (Etxeko Nagusiaren) esanetara zegoen beti Anaia Sindikaria, eta betiere Komentuko Kontseiluak kontrolatzen zizkion kontuak. Fraideak ez zuen dirurik izaten, eta gainerakoan Nagusiaren unean uneko esanetara egon ohi zen oso, "erabilpen soila" (*simple uso*) deitu ohi zenerako.

Ibilgailuen sarrerak, kanpoko ogibideetarako erraztasun berriak eta erlijioso lan-joan-etorriak izan dira, 1960etatik hona, egoera hura biziki aldatuz joan direnak, diruaren erabilera eta kontrolean. Frantziskotarren pobretasunak molde berriak bilatu behar izan ditu, eta bizitza modernora egokituz joan da, halaberharrez. Adibidez, Bankuetako kontu

²³ *Actas Capitulares y Definitoriales (Libro de los Acuerdos del Venerable Definitorio)* I, 10-11 (abril de 1885).

²⁴ Ik. ACD I: 29.

²⁵ *Ministros Provinciales: Normas.* 1959: 7-8.

pertsonalak agertu dira, eta hori arautu egin behar izan da (1983).

Zenbait hamarkadatan bizi izandako bilakaera nabari ageri da, adibidez, 1987ko Konstituzioetan: jabetasun instituzionalaren eta pertsonalaren arazo lehengoan dago, ondasunen erabilpen pobre eta kontrolatua ere bai, baina dirurik gabeko frantziskotarrik ez da jada ageri, nahiz eta eskuetan denaren eta erabilitako diruaren kontu zehatza eman behar den²⁶. Monetazko ekonomia batean bizi beharrik ekarri du hori.

Arantzazuko Komentuan ere, beste Etxeetako abiada berean ez izan arren, bide bera egin da pobretasunak eta fraideen ekonomiak. Komentu-Etxeetan bezala burubide pertsonalean pobretasun-botoaren biziera gisa praktikoa batean modernizatara egokitu beharrik ekarri ditu aldakuntzak.

4. ARANTZAZUKO EKONOMIAZ (XX. MENDEA)

Arantzazuko Santutegia ez da sekula ekonomia-aren aldetik Komentu-Etxe arrunta izan, hain zuzen bertako lagunartea ere egitura bereziko izan delako. Berezitasun hori are nabariagoa izan da, gainera, XX. mendean, lagun-multzoa bera aurreko mendeetan baino handiago eta konplexuagoa izan delako. Komeni da, beraz, Santutegiko gizatalde horretaz zerbaite esatea²⁷.

4.1. ARANTZAZUKO GASTU- ETA EKOIZPEN-LAGUNARTEA

Edozein komentuk, gutxienez bost gizarte-zirkulu ditu bere baitan eta inguruan, eta denak dira Arantzazuko kasuan ere aintzakotzat hartzekoak:

Lehenik, Fraidearteak berak Komentuan bertan osatzen duena. Honek ezarriko dizkio Santutegiko ekonomiari beste Komentuetan ez ditugun ezaugarri bereziak.

Bigarren, Komentuko eliz elkarteek osatzen dutena (Hirugarren Ordena, Kofradiak, etab.). Santutegian bertan oso elkarre ahulak.

Elkarreetan sartu gabe, ohituraz fraideetarako eta berauen elizarako joera duten herritarrena. Arantzazu Auzoko auzotar elizkoiak, alegia.

Komentura noizbehinka hurbiltzen diren kristauena. Arantzazura erromes gisara etorri izan direna, etab.

Komentutik zerbitzu pastoralak eskaintzen zaizkien herri eta parrokiak fededunena.

Komentuetako ekonomia eremu sozial horien gain eratzen da, eta horietako bakoitzak bere gastuak sortzen ditu, berariazko ekarpen ekonomikoak ere egiten dituen bitartean. Harreman horiek dira Komentuak dituen kapitalik emankorrena, fraideek berek komentuan egin dezaketen nekazal edo industri lanarekin batera.

Antolakuntza sozial horri esker, eta berori segurtatuz gero, Anaiarteak ziurtaturik izanen du, hein handi batean, bere etorkizun ekonomikoa ere. Horregatik du interesa Arantzazuko kasuan zirkulu sozial horiek nola moldatu izan diren ikusteak.

4.1.1. Santutegiko bertako ekonomi lagunartea

Komentu arruntetan, fraideek eta zerbitzariren batek edo bestek (morroiek) osatu izan dute bertako lagunartea. Horiek dira komentuko bizilagunak, besterik gabe. Arantzazun, hori dena oso bestelakoa izan da, besteetako Fraidearte hertsiki horren ondoren.

Santutegiko Komentua Ikastegia izan den neurrian, eta kasu honetan Ikastegi bikoitza gainera, Fraidearte arrunta bera bezain beste zabalago bat suertatu da Arantzazun: Filosofia edo Teologia ikasten ari ziren fraide gazteena, alegia (hauek ere zinezko fraideak, baina fraide ikasleak). Komentu barruko hizkeran *Coristas* eta *Coristado* deitu izan zaio honi (korutarrak, alegia, fraide apaizek bezala Koruko otoitz ofizialetera joan behar zutenak). Dakigun bezala, talde hau kopuruz haziz joan zen, 1884an bertara bildu zenetik aurrera; lehenengo, apurka-apurka, eta gero, bizkorrago. Honela, XX. mendeko lehengo herenean 20/30en bat lagun ziren fraide ikasleok, baina gerraosteko hamarkadetan bizkorki joan zen gora taldea, 1965ean 79taraino iritsiz; ondoko urteetan, ostera, behera egin zuen horrek, 1978an Ikastegia Arantzazutik kendu zen arte²⁸.

Beste hainbeste gertatu da, mutikoentzako Seminario Frantziskotarrarekin: ziklo osoa bete zuen honek ere, talde txikitik hasi, goraldi nabaria ezaugu eta 1990ean Ikastetxea itxi zen arte. Talde honek mende beteko bizialdia izan zuela esan deza-

²⁶ Konstituzioak 1987: 82. art.).

²⁷ Beste inora joan gabe, liburu honetan bertan J. Zubietak "Arantzazu: El trabajo en el Convento" lanean erakusten diguna, edo era berean J. Unanuek "La hora del Concilio" derizkanaren lehen partean deskribatzen diguna lagungarri izango ditu irakurleak.

²⁸ Datu hauetarako, ik. J. Unanueren "Arantzazu, Casa de Estudio", liburu honetan bertan.

kegu, 1890ean Eskola Serafiko bezala sortu zene-
tik. 1897-1989. urteetan 3.266 ikasle matrikulatu zi-
ren Arantzazuko Ikastetxe honetan; epe ezberdinak
gogoan hartuz, esan dezagun 1908tik 1968ra doa-
zen hirurogei urteetan, 2.113 izan zirela matrikula-
tuak, eta beste 1.108 ondoko hogeitau urteetan (1968-
1990)²⁹. Horrela, bada, 1960-1990etako urteak izan
ziren zama ekonomikorik larriena ekarri zutenak,
eta ez da batere harritzeko, Seminario Berria abian
jartzean, Santutegiak erantzukizun ekonomiko-
eremu honetan bere mugak jarri nahi izatea.

Esan gabe doa, noski, Teologiako Ikastegiak
bezala fraidegaien Seminarioak ere beren irakasle-
goak izan dituztela, irakas-lanetara emanak, eta
beste ekoizpen-lanetan ezer handirik ematerik ez
zutenak. Ikastetxeen hau inbertsioa zen, noski
(fraide-belaunen segida segurtatzen baitzuen),
baina talde kontsumitzailea zen, artean ez-pro-
duktiboa oro har. Bistan dago talde honen bila-
kaerak bere esanahi ekonomikoa izan zuela
Arantzazuko ekonomian.

Pisu handiko bi Ikastegion ondoan, bestelako
esanahia duten bi lagunarte izan ditu Santutegiko
Komentuak: Bidaurreta eta Gomiztegiko Anaiarte
biak, bakoitza bere ezaugarri propioekin. Hura,
hiruzpalau laguneko, eta hau lauzpabostekoa.

Bidaurreta historia luzeko kapilau-etxea izan da,
eta XX. mendeko bigarren hamarkadatik beti inda-
rrean egon da, kapilautzak eramanez eta bertako
baratza ere zaindu eta landuz; azken bi hamarkada-
tan herriko parroki zereginetan ere izan du eskurik.
Dakidanez, berariazko ekonomia eraman du (ia beti
Santutegiko paperetan bildu izan zena, eta azken
urteetan zuzenean Probintziakoei atxikia), eta
Santutegirako lagungarri ere izan da (batez ere Anaia
L. Arraiagok baratzearen ardura hartu zuenetik).

Gomiztegiko Baserria, bere Anaiartearekin
(1950etik hona), Santutegiaren laguntza ekonomi-
ko estimagarria izan da, hainbat Anaiaren eskulan
emankorra ahalbideratu duelako, betiere familiarte-
ko lantegi gisara, eta horregatik fraide-langileen
soldatarik eta segurtasun sozialik gabe, baina lan-
postuei zegokien produktibitatea Anaiartearentzat
segurtatuz. Bestelako enpresa-bideragarritasun eta
etekin normalik nahi balitz, Euskal Herriko base-
rrietako ezin berak agertuko lirarteke hemen, uste
dugunez.

Hiru moldetako izan da komunitate-gune na-
gusiaren lan-produkzioa:

1. Fraide apaizen elizako eta kanpoko pastoral-
lanarena.

2. Fraide irakasleen maisu-lanarena (auzoko es-
kolan, teologi ikastegian, seminarioan).

3. Fraide Laikoena, etxeko lanetan eta lantegie-
tan egina edo kanporako produkzioa (argitaletxea,
inprimategia).

Horrek guztiak ere bere ekarria izan du, alde
batetik Santutegira zetozen erromesekin harreman
ekonomikorik sortu duelako (limosnak, Meza-man-
datuak, etab.), eta era berean ikustatutako herrie-
kin ere (fraide limosnariaren bisitak, predikarien
ordainak, etab.).

Irakaslegoarena, sarrera ekonomikotan, murre-
tzagoa izan da, oro har, nahiz eta Probintziako
etorkizuna segurtatzean, Erakundearen aldetik guz-
tiz emankorra izan den. Arruntki bospasei ziren Teo-
logiako irakasleok, eta, unerik altuenean (1965),
hamar izatera iritsi ziren.

Fraide Laikoen lana, ostera, hagitik produktiboa
gertatu izan da, etxeko lanetan aurreratzen zenaga-
tik (mantenua, zerbitzuak eta hobekuntza materia-
lak) eta kanporako ekoizpena ere bazuelako: libu-
ruak, aldizkariak, harpidetzak, etab. Talde hau
Arantzazun erlatiboki altua izan da: 1920-1940.etan
26/35 lagun izan ziren laurogeiren bat laguneko
Anaiartearen, gero gora egin zuen horrek, eta
1961ean 55 izatera heldu ziren, 156 laguneko
Anaiartearen: 1968a arte, fraide Apaizak baino gehia-
go izan ziren Laikoak Arantzazun, eta geroztik
paretsuan ibili dira.

Orokorrean esan dezagun, Komentuko produk-
tibilitate ekonomikoan desoreka garbia ikasle-irakas-
leengandik zetorrela, baina Anaiarte hertsian (frai-
de-apaizak + anaia laikoak) gauzak aski orekatuak
ager zitezkeela Santutegian. Baina oreka eta zinez-
ko erosotasun ekonomikoa 1980.tatik hona datu
ekonomiko berri batetik etorri dira: erretiroa hartu-
tako fraide asko dago orain Komentuan, eta aho
gazte gutxi jateko.

Santutegi-guneko ekonomiak izan du, azkenik,
besterik ere: Gogartetxea, Oroigarri-Denda eta Os-
tatua. Hiru gune hauek fraideenak izanik ere, kan-
poko langileek eraman izan dituzte mendean ze-
har. Gogartetxea defizitariora gertatu da 1982ra arte
edo, eta gero ondoko antolaera berrituak berdindu
ahal izan ditu gastu-sarrerak³⁰. Ostatuari dagokionez,
hamarkadatan defizitariora izan ondoren, 1980an
bideratu ahal izan zen egitura eramangarriago bat,

²⁹ Ik. AGIRREZABALA, L.; BERAZA, M. (1997): *Alumnado de nuestro Colegio/Seminario de Aránzazu y Forua*. Zarautz. IV. ETXEBERRIA, J. (1996): Arantzazuko Seminario. (Ikasle-irakaslego-
buruzko datuak. Neure artxiboan).

³⁰ BERISTAIN, I. (2001): "Arantzazuko Gogartetxea", in: INTXAUSTI, J. (Zuz.) (2001): *Arantzazu. XX. mendeko euskal Santutegi bat*. Arantzazu. 398-399.

eta gaur egun bere burua berdintzen du. Oroigarri-Dendak, berriz, defizitik gabe, beti utzi izan du zertxobait.

4.1.2. Eliz elkarteen ekarpen ekonomikoa

Arantzazuko bertako Elkarteez ari gara hemen. Arantzazuk bertan apenas izan duen, gainerako Komentuetan modu sistematikoan sustatu izan ziren eliz elkarte haietakorik: San Antonioren Batasuna, Mariaren Alabak, Antoniotarrak, etab.

Hala ere, bi behintzat aipatzekoak dira; bata Auzoko Hirugarren Ordenako Anaiarteak, eta bestea, Santutegitik sustatu eta gidatuta modu oso formalean eta eraginkortasun handiz eratutako Arantzazuko Amaren Kofradia. Lehenengoaz (1918) esanda dago zerbait, eta bigarrena ere ezaguna da (1917)³¹. Esan beharra dago, gainera, bi elkarte hauek ez zirela izan tokikoak bakarrik, baizik eta Hirugarren Ordenako Anaiarteek Arantzazuko komentu-barruti osoan zeudela banatuta, eta Arantzazuko Kofradiak, osterak, nonahi zegoela ere (batez ere Gipuzkoan erroten zen), Santutegian zuela bere gobernu-egoitza.

Bi elkarte hauen ekarri ekonomikoa zuzena hutsaren hurrengoak zen, edo orokorki erromesen limosnekin batera etor zitekeen. Alde honetatik, Santutegirako erromesaldiak sustatu eta bideratzen lan egin zuelako Kofradiak badu, bada, bere pisua, berori neurtzea zaila gertatzen bazaigu ere. Kofradiak bezeria leial bat eratzen lagundu zion Santutegiari, eta leialtasun hark zeharbidez bederen zeresan ekonomikorik ere izan zuen. Herritar anitzek eliz elkarte hauetan aurkitu zuen Santutegiari pertsonalki eta iraunkorki atxikitzeko lokarria. Nahi izanez gero, berauen bidez "arantzazuartu" zen betiko erromes arrunta ere.

4.1.3. Kristau auzotar libreak

Arantzazuko Auzoa beti izan da txikia bizilagunez, zabala lurraldez, sakabanatua baserriz. Portzentaiaz segur aski, auzotarrek Santutegiko Elkarteetan izan duten parte-hartzea ere altua izan da seguraski; baina, nolana ere, gehienak kristau elkarte-loturarik gabekoak izan dira.

Auzotar hauek –betiere nekazari edo ganaduzale Auzo txiki batez ari gara– ezin ekarpen ekonomikoa handirik egin, urteroko esku-erakutsiren bat gorabehera (adibidez, fraideren bat hiltzean, auzo-

tarrek emandako ohizko limosnak). Bi aldeetatik elkarri egindako ohizko keinu hauek esanguratsuak izan dira, noski, gizatasun mailan, baina ez dute pisu ekonomi berezirik izan.

4.1.4. Erromesen ekarpen ekonomikoa

Arantzazuk, Santutegia denez, bere bezeria handiena erromesetan izan du, urtero, maiztasun jakinez eta inoiz edo bestetan heldu den erromesen artean. Erromesaldiek historia berri bat ezagutu dute XX. mendeko Arantzazun³².

Lehendik Santutegirako erromes-tradizioa zuten herrien ondoan, haragoko zirkuluetatik ere erromesaldi edo peregrinazio antolatua heldu dira Arantzazura Euskal Herriko herrialde guztietatik, sarritan urterokotasun finkoa mantenduz. Hori, ordea, ez da beti berdina izan, eta batez ere 1918-1970.etan lekutu behar da erromesaldi horien dinamika bizkorrena. Bestalde, horren barruan Jubileu-Urte berezietan indartu izan dira Peregrinazioak; 1955-1956.koa da horren adibiderik argiena³³.

Azken bizpahiru hamarkadetan jite berri bat hartu du Arantzazurako igoerak: norbera eta noiznahi bere berebela hartu eta igo ohi da. Talde-peregrinazioak moteldu egin dira, erlatiboki, eta norbere kabuzko igoerak ugaritu dira, baita familien igoerak ere, ez gutxitan iganderokoak gainera.

Turismo-moduak ugaritu direnetik, Arantzazun ere nabaritu da hori.

Erromes edo bisitarien ugaltzeak zein ondorio izan ditu Santutegiko ekonomian? Horiek, denek ere, limosnatan esaten dute beren "hitza", Komentuko ekonomia arruntari lagunduz. Bestalde, ongi-le bereziak ekimen berezietarako daude.

Erromesen mundua zaintzea Santutegiko fraide guztiei dagokien lan pastoralak da, eta bertan eskaintzen diren zerbitzuen truke datoz erromesen limosna eta laguntza solteak (elizkizunetako limosnak, Meza-diruak, etab.) eta Santutegiko erosketetan beroriek eralgitzen dutena. Borondatezko sostenguarekin batera salmentazko sarrerak daude, beraz. Antzeko zerbait daukagu, azkenik, Santutegitik kanpo fraideek bete ohi dituzten zerbitzuetan, eliz zerbitzuetan eta bestelakoetan.

4.1.5. Apaizen zerbitzu pastoral-profesionalak

Santutegiko Fraidearteak, bere jarduera pastorean, eskualde, Probintzia eta herrialdez kanpoko

³¹ AGIRRETXE, E. (2001): "Hirugarrendarren zerbitzuan" eta INTXAUSTI, J. (2001): "Arantzazuko Kofradia berria", in: Intxausti (zuz.) 2001: 304-305, 387-390.

³² INTXAUSTI, J. (2001): "Arantzazura erromes", in: Intxausti 2001: 353-364.

³³ Intxausti 2001: 357.

zereginak ere izan ditzake, eta izan ditu. "Arantzazuko fraidea" leku askotara iritsi izan da Euskal Herrian, eta erbestean ere, bere lana estimatua izan delako eta sarritan tradizio luze baten harian urtero hainbat herritatik fraidea herrira etor zedin Arantzazura dei egin izan delako.

Arantzazuko diru-kontuetan kanpoko apaiz-zerbitzu hauen aztarna agerian dago: sermoiak, gogojardunak, mota guztietako hitzaldiak, etab. Azken hamarkadetan, gainera, lan profesionalak sortu dira, batzuetan pastoraletik gertu daudenak, eta bestetan, urrunagoko kultur zerbitzuak.

Arantzazu ez da izan, hiriburuetako Komentuak bezala, profesional-jende gehiegi bildu duena (Unibertsitateko irakasleak, inoren konturako langileak, etab.), baina honelakorik ere bada bertan, batez ere komunikabideetan diharduenik. Lanbide hauek beren sarrera propioak dituzte, ohi den bezala Komentu-Etxeko diruzaintzara doazenak.

Deskribatu dugun komentu-lagunartea da, bada -eta berorren inguruko gizartea-, Santutegiko ekonomiarri oinarri eta sostengua eman dizkiona. Ondoko laukian labur dezakegu ekoizle-multzo hauen presentzia:

SANTUTEGIKO LAN PRODUKTIBOAK

Anaiartekoak	
Eliz lanak	Meza-diruak Prediku-diruak Bestelako eliz zerbitzuak
Esku-lanak	(Etxeko lanak)* Inprimategia (1921-1995) Etxeko lantegiak: tailer mekanikoa, okindegia Gomiztegi baserria (1950...) (Elizako esku-lanak)*
Kultur-lanak	Aldizkariak (1921...) Argitaletxea (1954...) Kanpoko kultur lanbideak
Limosnak	Santutegian utziak Etxez etxekoak (...1970) Elizkizunetako eskeak (1981) Dohaintza bereziak

Anaiarteaz kanpoko lantegietakoak	
Ostatua (1912...)	Erromesentzako ostatu-zerbitzuak
Denda (1910...)	Liburu eta Santutegiko oroigarri erlijiosoak
Gogartetxea (1936...)	Gogo-Jardunak. Talde berezientzako bilera-ostatu zerbitzuak

* Parentesian eman ditugu diru edo jenerotan ordaintzen ez direnak. Lanaren ondorio diren erretiro-pentsioak ez dira lauki honetan sartu.

4.2. GASTU-SARREREN EGITURA

Oinarri zabal eta ezberdin horien gain eraikita egon da Arantzazuko ekonomia, bai beharizan arruntei erantzuteko eta baita gastu ezohizkoetarako ere. Gastuak halabeharrezkoak (jantzia, jatena, aterpea) eta borondatezkoak (tabakoa, jantzi-janariaren kalitatea, etab.) izan zitezkeen, fraideen ohitura libreei erantzunez har zitezkeenak. Fraidea arau jakin eta orokorren menpe bizi izan da, eta legeen eta Aita Goardiano edo Nagusiaren irizpideen menpe. Oro har, aginteak bazuen, hein batean, gastuak bere neurri egokietara ekartzeko ahalmena; baina, egia esan, fraidea modu apalean bizi izan da, luxurrik gabe, miseriarik gabe.

Nork izan du eskuduntzarik ekonomi eremuan? Horretan botere politikoa agintariena izan da, baina zeregin tekniko-kontablea Sindikariari utzi izan zaio.

Komentuetako ekonomia eta gastu arruntak Etxeko Goardianoaren eta beronen Kontseiluaren (Discretorio) begiradapean egon izan dira, eta daude; bestelako joerarik sumatu denean, araua espreski gogorarazi da³⁴. Gastu berezietarako eskuduntza zehazki mugatua zegoen, eta agintariak bere kabuz erabaki zezakeenari beti jarri izan zaizkio mugak.

1898an, Goardianoak 125 pezetarainoko baimenak eman zitzaizkien, gastuetarako; hortik gora, bere Kontseiluarekin kontatuz jardun behar zuen, eta azken hau ezin zitekeen pasa 250 pezetatik harago³⁵. Berehalako urteetan, ez zen hori sobera aldatu: 1913an, urteko ezohizko gastuetan 100 pta. zen Goardianoaren muga, 300 Kontseiluarena, eta 500etik gorakoetan Probintzialarengana jo behar zen³⁶. Mugaren hau -gorago edo beherago-

³⁴ Ik. ACD IV, 352 (1968): "Se urge a superiores y súbditos la respectiva obligación de exigir y rendir cuentas de la administración de todas aquellas actividades que radican en cada convento y cuya administración no sea *ipso jure* autónoma".

³⁵ ACD I, 1898-05-01.

³⁶ ACD II, 141.

beti egon da indarrean, administrazioarako arau oro-kortzat.

Komentuko egitura eta harreman-sare arruntek beren bidetik eta gisara erantzun behar zieten gastu arruntei, horietarako sarrera-bide ezagunez baliatuz. Ezohizko gastuetan, bide bereziak bilatu ohi ziren, tokian tokikoak nahiz Probintziakoak, eta beti ere goikoen onarpenarekin kontaktu. Holarakoetan –gastu handiak edo oso handiak zirenetan– irudimenak eta ahaleginek urratu behar zituzten bideak. Basilika Berriaren eraikuntza adibide hona da honetan³⁷.

SANTUTEGIKO FINANTZABIDEAK

GASTU ARRUNTEN FINANTZABIDEAK

Baratzea eta baserria.
Meza-diruak.
Kanporako eliz zerbitzuak.
Etxez etxeko eskea.
Elizako eskea.
Produktuen salmenta.
Ostatu, denda eta abarretako sarrerak.

Mendean zehar aldatuz joan izan dira multzo bateko eta besteko sarrera-portzentaiak.

EZOHIKO GASTUEN FINANTZABIDEAK

Etxeko aurrezkiak.
Probintziako funtsa.
Eliz eske bereziak.
Herri Erakundeen laguntzak.
Ongile eta elkarte lagunien ekarpenak.
Banku-kredituak.

Ahal delarik, kreditua da azkena bilatuko dena; gasturik handienetan Erakundeen eta herritarren aparteko laguntzak bereziki zaindu izan dira.

Idazlan eginago baten zain geratzen garen bitartean, XX. mendeko Santutegiko *ekonomia arrunta* deskribatzeko urte jakin batzuk aukeratu ditugu: 1910, 1925, 1940, 1955, 1970 eta 1990. Hemen alborra utziko dugu gastu eta proiektu berezien arazoa, eta Santutegiko egunerokotasunera bilduko gara.

Berehala aurkeztuko ditugun sarrera-gastuen kontuak, zoritxarrez, ez dira eman beti gisa berean; horregatik, ez zaizkigu gertatuko guztiz alderagarriak mende osoan, baina, uste dugunez, hurbilpen argigarri bat izateko lain balioko digute. Dena den, kontuok zerbait erlatibizatu beharra dago, zeren eta sarrera-irteera denak ongi jasotzeko esanda bazegoen ere, jenerotan emandako limosnak, adibidez, gaur-gaurkoz ez dakigu zenbat izan ziren,

eta jakin badakigu askotan horrelakoen kontuak ez zirela jaso paperetan.

Arantzazuko komentu-demografian bezala ekonomian ere, XX. mendeak grosso modo hiru epealdi ezberdin dituela esango genuke: gerrarainokoa (1900-1939), gerraondo luzekoa (1939-1970) eta Kontzilio-ondokoa (1965/1970-2000). Gerrarainokoa Anaiarte txiki baten ekonomia da, biziera tradizional oso arautuan doa artean eta baliabideak ere oso betikoak ditu, guztiz “eliztarrak” esango genuke (aldizkarien sorrera izango litzateke urte haietako berritasun modernoagoa, gerora indar handiagoz garatu zena).

Bigarren epealdian (1939-1970) osagai berri edo dinamizatuak aurkituko ditugu: Anaiarte azkarki hazi zen, baina barne-orekarik gabe (betiere etorkizunari begirago, unean uneko ekonomi ahalbideei baino); fraideartea gutxienez bikoiztu egin zela esan genezake. Testuinguru horretan eta lehendik Etxeak zituen baliabideen ondoan (bertako eta kanpoko ohizko lanak eta limosna), Arantzazuko ekonomian bi osagai berri agertu ziren: Gomiztegiko Baserria (1950) eta Argitaletxea (1921az geroztik aldizkarien harpidetzak batik bat, eta 1950a ondoren, liburugintza ere).

Hala ere, defizit kronikoan edo berorren mugatan ibili ohi ziren Arantzazuko kontuak, halakoa baitzen ikasle-irakaslegoek zekarten atzera-karga. Epealdi honetako protagonista aldatzailea Fraideartea bera izan zela esan behar da, bere baitan izan zuen dinamikari esker, ondokoentzat Arantzazu berri bat eraikiz, gainera, han eta hemen lortutako konplizitateak lagun. Eta hain izan zen emankorra orduko ahalegina, ze ondoko 30 urteetan edo (1970-2000) orduan egindako inbertsioari esker iraun baitu Santutegiko eta Probintzia Erlijiosoko frantziskotar Fraidearteak bere onean.

Santutegiko eremu ekonomikoan, 1970aren bueltan aldatu ziren gauzak, hobera eginez, izan ere aurreko hamarkadetan garatutako produkzio-sistemak berean irauten zuen bitartean, Anaiarte erdira etorri baitzen (gazte ez-produktiboak desagertu ziren), eta arestian aipatu ditugun erretiro-pentsioak agertu. Azkenik, betiko defizitei gaina hartu zitzaizen azken epe honetan, Gogartetxe eta Ostatuko kudeakuntzak ere saneatzean. Gizarteko bizi-maila orokorrak, Etxeko kudeakuntza eraginkorragoak eta barneko gastuak arintzeak oreka eroso bat ekarri dio Santutegiari eta bertako Fraidearteari.

Aipatu ditugun eta berehala aztertuko diren urteetako kontuak arakatu aurretik, egoki izango da hemen, eskueran ditugun neurrian, urte bertsuetako oinarritzko datu demografikoak ematea, kontue-

37 Ik. Liburu honetan bertan PAGOLA, M.: “La construcción de la nueva Basílica de Arantzazu” (182-225 or.).

tako ondasunak zenbatak sortu eta kontsumitzen zituena ezagutzeko jarduteko:

SANTUTEGIKO BIZILAGUNAK (XX. MENDEA)³⁸

	1910	1928	1940	1955	1970	1990
Anaiarte hertsia	33	58	69	83	93	59
Fraide apaizgaiak	9	16	36	68	47	0
Mutiko fraidegaiak	54	c. 70	74	134	284	26
Orotara	96	c. 144	179	285	424	85

Bizilagunak: Fraideartea eta Seminarioko ikasleak. –*Anaiarte hertsia:* Fraide apaizak + Fraide laikoak (donatuak barne, kasu honetan)– *Fraide apaizgaiak:* Apaizetarako prestatzen ari diren erlijioso gazteak. *Mutiko fraidegaiak:* Kolegio Serafikoko mutilak.

Urte horietako datu kontable zehatzak eranski-netarako utziz, berorietan ikus daitezkeen ehunekoak (portzentaiak) aztertuko ditugu batez ere ondorengo lerroetan³⁹.

4.3. GASTU-SARREREN HISTORIA (XX. MENDEA)

Bi galdera nagusiri erantzuten saiatuko gara hemen: 1) Nondik bizi izan dira XX. mendeko Arantzazuko fraideak?, eta 2) Zertan eraldi izan dituzte bildutako baliabide ekonomikoak? Zer ordaindu behar edo nahi izan duten, alegia.

Hasteko, esan beharra dago Desamortizazioak bere lana egin zuela Arantzazun ere. Alde batetik, garairen batean egon zitezkeen fundazio, zentsu eta abar desagertu dira, eta ondasun higiezinak ere orduan galdu ziren (orube, eraikin, baratze, baso, etab.). Ez zegoen fraiderik (1840-1878); beraz, ez zuten ondasunik, ez orduan eta ez gero. Fraideartea izanberitu ondoren konpondu beharko zuten hori (1878...).

Hortaz, Izanberrikuntzak (1878...) ondarerik gabeko egoera bati aurre egin behar izan zion, Santutegiko ekonomia oinarri guztiz berri(tu)en gain jaso, nahiz eta ahalegin horretan betiko era tradizionalerik heldu (limosna, Meza-diru, baratze, etab.). Frai-

deartea, Santutegian bizitzen jarri eta 80 urte geroago (1878-1959), Santutegiaren landa-lurrek 46 Ha eskas zituzten, hauetako 30 Gomiztegi baserriari zegozkionak. Hori zen Oñatiko katastroan ageri zena⁴⁰.

XX. mendean Arantzazuko ekonomia, hamarkadak pasatu ala, konplexutasunean irabaziz doala agertzen zaigu: 1910eko azalpenak guztiz xumeak dira eta 1990ean, ostera, unitate ekonomiko garrantuagoak ageri zaizkigu. Gero eta nabariago, bi multzo ekonomiko ditugu Santutegian: Fraidearteari berari dagokiona (eta nahi bada, zenbait aldetatik hari gehituzten zaien Seminarioa), eta guztien sostengurako eratzen diren ekimen ekonomikoei dagokiena (moldiztegia, baserria, ostatua, denda...).

Alda-bidearen aldetik, garrantzizkoa da hori go-goan izatea, berrikuntzak, desorekak, estualdiak eta hobekuntzak ulertu ahal izateko. Adibidez, gerraosteko goseteak denok harrapatu gintuen, noski, egoera txarrean, baina okerrago kaletarrak baserri-tarrak baino. Arantzazuk –mendian egonda ere– ez zuen orduan baserririk, baina bizilagun asko zituen, eta apenas lantegi zinez produktiborik. Une txarra izan zen hura, oso, Komentu-Seminarioentzat.

Iturrietara gatozela, artxiboetan ditugun paperei buruz oharren batzuk egin beharko ditugu, zein informazio-mugarekin gabiltzan alde aurretik jakiteko.

Santutegiko kontabilitatearen ibileran nagusi izan diren irizpideak ez dira izan beti molde berekoak, eta datuak ez dira sail edo azpisail finko eta berdinetan aurkeztu izan. Honek arazoak sortzen ditu mende osoko kontuak batera eman eta modu homologagarri batean begiratu ahal izateko.

Finkotasun-segidarrik ezak zailtasunak baldin badakartza, okerragoa da, kontu-sail batzuk inolako argibiderik gabe desagertzen zaizkigunean: hori gertatzen da, adibidez, 1910-1925. etako Kolegio Serafikoarekin (nahiz eta berau guztiz abian egon 1909az geroztik), edo 1940ko gastuetan, jantzi, kultura edo ontziteriarekin (“varios” deritzanak irentsi ote ditu?).

Bada, gainera, oso nolabait eta partez bakarrik jaso izan den kapitularik: eske-aldietako limosnena. Dirutan jasotakoa, “limosnatan” eman ohi zen noski, baina zer gertatu zen jenerotan jasotakoarekin (garia, patata, gaztaina, bildotsak, etab.)? Ez zen egiten, uste dugunez, honen diruzko balioespenik,

³⁸ Iturriak: *Estado general de las provincias, conventos y residencias de la Orden de Menores de San Francisco en España...* Madrid, 1910. 94.- Ondoko urteetarako, Arantzazuko *Kronika* eta Amundarainen laburpena (1920-1977). Arantzazu, 1978-06-23. 1990ko laukitxoan ageri den 59ko zifra, 1992ari dagokiona da.- Seminarioko datuetarako: *1910-1911ko ikastaroa:* Homenaje 116 (Ibarreta); *1928:* Homenaje 119 (Ibarreta; nire hurbilketa); *1940 eta 1955:* CF, 1961, 62 (Arrieta); *1970 eta 1990:* Joseba Etxeberria.

³⁹Hona bilduko ditugun zifrak Anaia Joan Elizegiri zor dizkiogu; aurkezpena eta analisia geureak dira.

⁴⁰“Franciscanos de Arantzazu. Relación de fincas rústicas que figuran a su nombre en el Catastro de Oñate”. Arantzazuko Artxiboa. 5. Arm 5: 63. karp. 63, 2. dok.

eta, okerrago dena, ez dago jeneroetan segidatasuna duen mota-sailkapen eta zenbatekorik.

Etxeko ekoizpenari buruz (Gomiztegiko barazki, abere; moldiztegiko enpresa-kostuak, etab.) beti ez zen ematen, gerora bezala, balioespen ekonomikorik. Kontabilitatera iristen ez zen sarrera estimagarrik bazegoen, beraz.

Hutsune eta guzti, eta albistegi-irizpide ezberdinak gorabehera, ondoko datuek (eranskinetan jasoko ditugunak beti begi-bistan eduki behar dira) aski baliagarri gertatuko zaizkigu mende osoko bilakaeraren norabide nagusienak ezagutzeko, eta aldakuntzen esanahiaz neurri batean bederen jabetzeko.

4.3.1. Komentuko sarreraren bilakaera

Monasterio eta Komentuetako beste hainbat eremutan bezala (pentsamenduan, otoitzean, harremanetan, lanean, etab.), ekonomian ere aldakuntza sakonak ezagutu dira bukatu berri den XX. mendean. Eskekoen artean hainbat mende zutik iraundako pobretasun-moduak eta bizitza ekonomikoa aldatu egin dira biziki eta barru-barrutik.

Ez da hori gertatu, noski, ia inoiz egun batetik bestera, eta aldi batez (eta oraindik ere) sistema zaharreko osagarriak eta berriak elkartasunean bizi izan dira denbora batez, harik eta haietako batzuk guztiz desagertu diren arte. Hemen, erabat ez bada ere zerbait bereizita aurkeztuko ditugu ekonomia "zaharra" eta "berria".

– *Molde tradizionalako ekonomia*

Mendeko lehen erdian (1910...), Arantzazuko komentuko sarrerak iturri oso gutxitatik zetozen, eta denak erabat klasikoak ziren frantziskotarren komentuetan: Meza-diruak, etxez etxeko eske-aldiko limosnak, apaiz-zerbitzuak, limosna solteak, bertako elizkizunak, zenbait salmenta koxkor (hildako abereen larruak, dendako salmentatxoak) eta Seminarioko pentsio apalak. Hori zen dena.

Jada 1940a aurretik Ostatuko sarrerek gora egin zuten, eta pisu estimagarria hartu. Garai haietan, artean, argitaletxeko sarrerak ez dira ageri hemen eskura ditugun datuetan.

1955eko kontuetan egitura konplexuagoa dute sarrerek, eta mendeko bigarren erdian Santutegiko ekonomiak hartuko zuen egitura agerian dago jada, Fraideartearen beraren kontuetatik at agertzen zaizkigu kontuetan (batuketa partziala-2an, alegia)⁴¹, eta garbitasun handiagoz ageri da dena. Gastu nahiz produktiorako abian dagoen azken makineria berriak geroz eta esanahi erlatiboki altuagoa izango du

ekonomia orokorrean. Azken multzo honetan Seminarioko zama kenduz gero, gainerako guztiak batera superavita ematen du, 1955etik aurrera (momentuz, Gogartetxea da salbuespen bakarra). Lantegiei dagokien irabazi-galeren laukian begira daiteke hau.

Horrekin batera, komentuko bertako sarreretan (batuketa partziala-1) azpimarratzeko aldakuntza batzuk gogora ekarri behar dira. Lehen hamarkadetan Meza-diruek eta enkargurik gabeko limosnek dakarte ekarpenik handiena (1910: % 76), eta horrek berdintsu balio du 60 urte geroago ere (1970: % 61); bi horiek zinezko zutabe ekonomikoak izan ziren hamarkada haietan.

Eskeko Ordena bezala, herritarren borondate onetik jasotako limosnek beren lekua izan dute komentu frantziskoarretan, eta Arantzazun ere; aurreko mendeetatik zetorren usadioa zen hori. Etxez etxeko limosna-eskeak bere arauak eta aldizkakotasuna izan ditu: urtean zehar halako eta halako sasoiaren egiten zen eskea, bide jakin bati jarraituz, aldi bakoitzean jenero jakinak batuz. Esan dugunaren arabera, zoritxarrez, jenero-limosnen balantzerik ez dugu erabili ahal izan oraingoan, eta halakoen xehetasunik gutxitan ageri da; hemen, beraz, dirutan bildutako limosnaz ari gara. Diru-limosna hau izan da (Mezetakoetatik at), beste garrantzizko zutabe ekonomiko iraunkorra, hirurogei urtetan bederen indarrean egon dena, bere ehuneko handiekin: % 29 (1910), 33 (1925), 43 (1940), 21 (1955), 37 (1970).

Baina, ia bat-batean, halako tradizio egina zuen etxez etxeko eske-aldiak desagertu egin ziren, 1970aren inguruan. Hala ere, limosnaren honek jarraitu egingo du Arantzazuko ekonomian, beste modu batean izan arren, Basilikan egingo den Meza-bitarteko eskearen bidez (1981az geroztik indarrean berau⁴²: 10.933.723 pta. 1990ean, % 27). Ehuneko hamar puntu galduta bada ere, garai bateko limosna-eskea (...1970) nahiko poliiki ordezkaturiko du elizkizunetako beste honek (1981...). Beraz, limosna zaharra izanberritu egin dela esan daiteke.

1976tik aurrera berritasun nabariagoa dakarren faktore berri bat azaltzen zaigu Komentuko ekonomian: zaharren erretiro-pentsioak iristen hasiko dira urte horretako abenduan. Hamabost urte geroago (Anaiarte zahartzen ari da, nabarmenki), 1990ean pentsio hauek berek bakarrik sarreretako % 27 bilakatuko dira Komentuan, betiere "batuketa partziala-1" deitzen dugunaren barruan.

Sarreretako kontu-sailetan sarrera finkoena Meza-diruena izan da: Santutegiak beti jaso izan ditu

⁴¹ *Batuketa partzialak*: 1. Komentuko bertako gastu nahiz sarrera arruntek osatua; 2. Gainerako gastu- edo sarrera-multzok osatua: Argitaletxea, Seminarioa, Gogartetxea, Ostatua, Denda eta Gomiztegi.

⁴² 1981eko abuztuaren 15ean ekin zitzaion Basilikako Mezatan diru-eskea egiteari (Antonio Larrearen albiste).

bere apaiz-kopuruari erantzuteko lain Meza-enkar-
gu. Hasieran Mezen ekarpen hau erlatiboki oso al-
tua zen (% 47, 1910eko 1. batuketa partzialean), eta
kopuru absolutuetan estimagarria izaten jarraitu
izan du (7.032.400 pta. 1990ean), nahiz eta erlati-
boki jaisten joan den, 1990eko hori %18 bakarrik
izateraino (kontu-sail honetako sarrerak nahitaz
Etxeko apaiz-kopuruak eta estipendio-neurriak
mugutzen baitituzte batez ere). Pentsamolde eta
ohitura erlijioso iraunkor bati erantzun izan dio
Meza-mandatuen honek, eta Etxeko ekonomian
zutabe segurtatua gertatu da, esan bezala hamarka-
dak zehar ehunekoek behera egin duten arren.

Bestelako historia da Benedikta eta Hildakoen
Ofizioarekikoa: sarrera askoz apalagoa izateaz gain
(1910: % 4), 1955etik aurrera kontuetan ez da ager-
tu ere egiten (horrela, izendatuki behintzat).

Santutegitik kanpo prediku-lanaren ekarpen eko-
nomikoa ere erlatiboki txikia izan da: gehienetan %
4aren ingurukoa edo (inoiz bikoiztu bada ere), eta az-
ken hamarkadetan are txikiagoa, nonbait (1970: % 2
onenean ere, "actividades pastorales" kontzeptu oro-
korrago gehituz 1990ean % 9a emango lukeena).

Esandako hauek ondoko lauki-grafikoan labur
daitezke.

KONTU-SAIL TRADIZIONALEN EHUNEKOEN (%)
BILAKAERA (1910-1990)

	1910	1925	1940	1955	1970	1990
Mezak	47	31	41	31	24	18
Limosnak	29	33	43	21	37	40
Predikua	10	7	4	4	2	9

Iturria: Santutegiko kontu-liburuak (Joan Elizegi Anaiak
bildutako datuetatik). Kalkuluak, neureak.

Honela, aurreko mendeetatik zetorrenaren
arrastoan eraman izan da Fraideartearen beraren
ekonomia, XX. mendeko parte on batean (1910-
1970), eta susta zitezkeen lantegi-ekimen berriak,
oro har, batez ere mende horretako bigarren parte-
an garatu dira, zinez. Horrek eta aldakuntza demo-
grafikoak ekarri dute Santutegiko ekonomia berria.
Lantegi horietaz esango dugu zerbait.

– Molde berriko ekonomia

XX. mendean Arantzazuko Santutegiak bere
baitan lantegiak sortu ditu, fraideek berek beren
esku-lanaz eramandako lantegiak (inoiz edo bestea-
tan kanpoko langileren baten laguntza ere ingura-

tuz): Kolegio/Seminarioa (1909, 1969), Denda (1912),
Ostatua (1912), Inprimategia (1921), Gogartetxea
(1936), Gomiztegi (1950) eta Argitaletxea (1954).
Hauen kontuak (sarrerak eta gastuak) "batuketa
partziala-2" deitu dugun kontu-multzoan bildu
ditugu eranskinetan.

Helburu ezberdineko lantegiak izan dira hauek,
eta Fraideartearekin zerikusi ezberdina izan dute-
nak dira, gainera. Kolegioak, eta Seminarioak gero,
Erakunde frantziskotarraren oinarrizko premia bati
erantzun nahi izan zion: Arantzazuko Probintzia
Erlijosuari bere belaun-segida segurtatzeari, eta
horretarakoxe bakarrik 1922tik aurrera. Berez, ira-
baz-asmorik gabekoa zen, eta ahal ziren bideetatik
bilatu behar zuen bere sostengu ekonomikoa
(Komentutik, Probintziatik, fraidegaiantzat bekak
bilatuz, etab.). Beherago ikusi ahal izango dugu
zein esanahi ekonomikoa izan duen honek bere
bizialdian (1909-1990).

Denda eta Ostata ("Arantzazuko Ostata") to-
kiko erromesen galde eta premiei aurre egiteko
sortu ziren, Santutegiak, eta Komentuak ere, nahi-
taez zituen konpromezuei ahalik hobekien eran-
tzuteko. Mendeak aurrera egin ahala, eta ospaki-
zun handietan berezikiago, mota ezberdineko bis-
tariak igo dira Santutegira, eta denei eskaini behar
izan zaizkie oroigarriren bat eta beharrezko aterpea
ere. Biek ere beren antolaeran harat-honat dezente
ezagutu dute, normalean beren buruak ordainduz,
eta inoiz irabaziren bat edo utziz.

Inprimategia eta Argitaletxea txanpon bat bera-
ren bi aurpegiak direla esan daiteke. Irabaz-itxaro-
pen handirik gabe eratu lehenengoa (*Arantzazu*
aldizkaria jaiotzean: 1921), eta "Prensa Ona"-ren
ideiari jarraikiz abian jarria. Lantegi bezala,
Santutegiko emankorrena izan da bi hauen kasua,
eta 80 urtetan enpresa txiki bat gertatu da
Komentuan. Hiru motatako fraide langileak izan
ditu: moldiztegikoak, administrazio-zabalkudeaz
arduratuak, zuzendariak. Hamabi-hamalauren bat
lagunek jardun izan du lantegi honetan (zuzenda-
riak, administrariak, hedatzaileak, moldiztegiko
teknikariak). Soldatarik gabeko langileok (fraideak
izaki), beren lanaren emaitza ekonomikoa ekarri
izan diote Fraidearteari, lortutako liburu-salmenten
bidez eta batez ere aldizkariaren harpidetzekin⁴³.

Gogartetxea⁴⁴, apostolutza lan bezala eraiki zen,
gerra-bezperako urteetan, eta bertako etekin eko-
nomikoa bigarren edo hirugarren mailako zerbait

⁴³ Ik. ZUBIZARRETA, K. (2021): "La Imprenta en Arantzazu"; GUERRA, J. A. (2001): "Arantzazu, centro de actividad literaria (1936-2000)" eta LETONA, J. (2001): "Arantzazuko aldizkariak", in: INTXAUSTI, J. (zuz.) (2001): *Arantzazu. Euskal Santutegi bat XX. mendean*. Arantzazu. 210-214, 315-321, 324-329. Zubizarreta eta Guerraren lanak hemen, liburu honetan ber-
ton, ikus daitezke zabalago.

⁴⁴ BERISTAIN, I. (2001): "Arantzazuko Gogartetxea", in: Intxausti (zuz.) 2001: 391-402. Ik., gainera, idazlan berori zabalago
hemen, liburu honetan beron.

izan da beti, nahiz eta Zuzendariak saiatu diren defizit gaiztorik izan ez zezan.

Ekimen ekonomiko hauetatik guztietatik, zinez lehen xede bakarra ekonomia izan duena Gomiztegi da. Lanaren aldetik, familiarreko baserri bezala ulertu behar da Gomiztegiakoa (1950...). Hemen ere lanpostuak sortu dira, etxeko fraide Anaiantzat batez ere (bertan bizi izan dira berauek 1953tik hona), nahiz eta beti egon den morroiren bat edo beste.

Nekazari eta ganaduzale aldi berean, Gomiztegiako ekoizpena aldatuz joan izan da, eta azientza larri eta xehea izan ditu. *Bebiak*: ukuilukoak (1953-1980 eta larrekoak (1984-2002); *zerriak*: etxerako (1953-1964), eta zerritegi handia egitean, merkaturakoak (1966-1978): 40 txerrama eta 120 gizentzekoak; *ardiak*: 1982tik aurrera: 300en bat. Hegaztiak ere beren lekua izan dute: *abateak*: 200en bat (1958-1960); *oilok*: 4.000ren bat (1966-1978). Bestelako abererik ere denbora batez bederen izan da: zaldiak, txakurrak, erleak (1953-1965: 600 kg ezti urtean).

Ardi-esneak beste produkzio-alor bat jarri zuen abian: lehen bi urteetan ardi-esnea bera saldu izan zen merkatuan (1982-1984), eta 1984tik hona gaztagintzari ekin zitzaion. Urte horietan guztietan ardia eta ardi-gazta izan dira Gomiztegiako emaitzarik ezagunenak. 1997tik hona Artzain-Eskola bat dago jarrita baserrian, lanbide honen alde teoriko eta hezitzaileak ere zaintzeko, Nikolas Segurola fraidearen eta Batis Otaegi zuzendariaren ardurapean.

Gomiztegiako baserriak kalitateko lana egin nahi izan du, abeltzaintzan bezala nekazaritzan, eta ondorioz Sariak katea luzean etorri zaizkio, bai azientza kontutan eta era berean barazkitan. Behi eta artzain-txakurren Sariak pasaerako anekdota izan badira, ardi eta gazten Sariak behin eta berriz jo dute atea Gomiztegin: esate baterako, ardi eta arkazteen lehen Sariak Gipuzkoan hamar bat urtetan.

Gaztagintzaren (7.000 kg 2002. urtean) kalitateak jendaurreko ezagumendu ugari izan du: Espainiako jatorrizko deituen arteko lehiaketan Gomiztegiako "Idiazabal" gaztak lehen Saria jaso zuen Ministerioan (2001); era berean, Pirinio-inguruetako gazten artean (La Seu d'Urgell) lau domina irabazi ditu gazta berak (bi urrezko, eta zilar eta brontzeko bana), eta Gipuzkoako Txapelduna da orain (2002); azkenik, beste hainbat lehiaketetan eman zaizkio Sariak: Oñati, Tolosa, Eibar, Elgoibar, etab.⁴⁵

Testuinguru horretan lekutu behar da, beraz, Gomiztegiako fraide eta laguntzaileen lana, ekonomia ez ezik lanaren jatorritasuna bilatu duena: lanetsenplu on bat, alegia.

Ohartzekoa da lantegi hauetan guztietan lanean diharduen pertsonal erlijiosoak ez duela soldatarik jasotzen, eta kontuetara ez dela eramaten balizko ordaindu gabeko soldata horien albisterik; hortaz, kontuetako sarrera-irteeretan ezkututua (isildua) dagoela datu larri hau. Inprimategi, Gogartetxea, Gomiztegi edo Seminarioko zuzendari, irakasle eta enparauak horrela ari dira lanean, eta galera-irabaziak beren zinezko errealitatean ulertzeko ezingo da hau ahantzi.

Ondoko lauki honetan laburtzen ditugu lantegi hauetako sarrerak.

ARANTZAZUKO LANTEGIETAKO IRABAZI-GALERAK
(1940-1990)

Lantegiak	1940	1955	1970	1990
Seminarioa-Gogartetxea	-424.889	-254.359	-2.176.143	-10.829.011
	-	-	-42.450	801.484
Inprimategia	-	-	-	14.953.212
Argitaletxea	-	636.480	3.539.802	2.154.378
Gomiztegi baserria	-	-	343.857	3.800.397
Arantzazuko Ostautua	36.475	-25.849	117.280	21.771.878
Denda	-	104.823	818.002	6.337.378

4.3.2. Komentuko gastuen bilakaera

Arantzazuko gastu arruntak guztiz mugatuak ageri zaizkigu, hau da, eguneroko premia soil jakinetara bilduak: apala eta handinahi gutxiko ekonomia da hau. Honela, lehen oinarritzko beharrezanetan doa gastuetako parterik handiena: jan-edari, jantzi eta osasun-alorretan, alegia.

Hiru azpi-eremu horiek beti izan dituzte lehen-tasuna eta pisurik larriena: 1910eko kontuetan jate-na-jantzia-osasuna % 75 izatera heldu zen; 1925ean goragotik ibili zen hori: ia % 78, eta 1940an ere hortik gora joan zen ehunekoa: % 78, jantzi kontatu gabe (ez baita hau urteko kontuetan ageri). Mendeko bigarren erdian, aurreko hamarkadetakoa gastu-egitura geroz eta gehiago aldatuko da: 1955eko urte berezian ("Arantzazuko Jubileua"), eremu honetan % 67 zena, 1970ean % 45era erori zen, eta 1990ean, berriz, % 24raino.

Osasunarekikoak merezi du aparteko ohar bat: mendeko azken bi hamarkadak arte, Santutegia zuzenean konpondu izan da bere medikuekin. Lehenengo, Oñatiko bere sendagilearekin, gero

⁴⁵ L. Arraia eta N. Segurola-ri zor dizkiet albiste hauek. Ik. SEGUROLA, n. (2002): "Gomiztegi baserriko senitartea", in: Intxausti (zuz.) 2001: 126-129.

mediku berezilariekin, eta luzaz ez du aseguririk izan (ezta partikularrik ere), eta 1980 ingurutik hona edo Seguru Soziala/Osakidetza izan du, eta hau ez zutenentzat Asisa eta Seras izan ditu, Aseguru Sozialaren osagarri. Berrikitako egoeran (Aseguru publikoa eta guzti, alegia), osasun-gastuek gora egin dute hala ere, eta 1910ean % 2,5 zena, 1990ean % 9ra iritsi zen.

Janari-jantzi-osasunen datu horiek eta berorien bilakaerak zer esan nahi duten galde liteke. Arantzazuko jatorduak ezagutu dituenak zera segurtza dezake: gerraondoko gose-aldietan salbu, Anaiarteak ez duela gaizki jan, baina luxurik ere ez duela izan; ahal izan duen bezainbatean etxeko baratze-tik eta limosna-jenerotatik hornitu duela lapikoa. Horretan ohitura sana, bai, baina goserik gabeko pobretasuna izan duela.

Hori esanik, janari-jantzi-osasunek azken bi hamarkadak arte izandako halako pisu erlatibo altua aurrean dugula eta gastuetako beste kontu-sailetara gatzela, ondorio jakingarriak ditugu: adibidez, Ikastegia izan zuen Komentu honetan gastu hauetan ez da ageri kultur politika dinamikorik (biblioteka, ikas-bidaia, ikastaro berezi, etab.), neurri batez behintzat honelako gastuak Santutegi kanpotik lagundu izan zirela (Probintziatik, alegia). Benetako kultur gastua ikasle-irakaslego zabal bati jaten ematean egon da, eta ikasle-fraidearte hori dena ikas-irakasteko mantentzean. Gainerako kultur zerbitzu osagarrietan Arantzazuko Komentuak berak ezer gutxi eralgi zuen. Kultura/biblioteka, e.b., eguneroko prentsa barne, oso zifra apalak ageri dira, % 4ra iristen ez direnak⁴⁶.

Egiturazko gastuak albora utzita (eraikina, personala), elizkizunetan ez da ia gasturik izan, eta

mende osoko datuetan altuenean ere (1955) kultura ez da iritsi urteko gastuetan % 4 izatera⁴⁷.

Gastu hauetan agertzen zaigunez, Arantzazuko fraideak, herritar guztiak bezala, beren bidai eta garraio-ohituretan aldakuntza handiak ezagutu dituzte XX. mendean. Jada 1925eko kontuetan ageri da auto bat, eta nahiz eta berorren albiste kontablea 1940an "varios" batean galdurik geratu zen, Arantzazun harrezkero beti izan da autorik (garai batean kamioi eta Land Rover-en bat bakarrik, 1970etik aurrera halakoa eta turismoak).

Beroriek zaindu eta konpontzeko, fraideek beren tailerra izan zuten, batez ere J. M. Izagirrek eraman zuena; berebilen mantenimendua, bada, etxeko lana zen batez ere. Kilometraje-gasturik ez da kontuan hartu izan, baina bai erregaia eta etxetik kanpoko ibilgailuetan ordaindutako bidaiak: honelako gastuak 1955ean % 10,77 izan ziren (134.709 pta.). Nahiz eta kontu-sailetan berebil eta bidaienak ez diren beti garbiki bereizita ageri, esan daiteke 1970ean ere %10aren inguruan zebilela saila, eta 1990ean, bestelako ekonomia baten barnean, % 7aren inguruan.

Hau dena noski, Fraideartearen beraren kontuen barnean ulertu behar da ("batuketa partziala-1" deitu dugunaren baitan, alegia).

4.3.3. Defizit eta superavit-ak

Aipatutako urteetako jarduera ekonomikoek azpiko taulako emaitza hauek eman zituzten, betiere Fraidearteaz kanpoko unitate ekonomikoak aintzartat hartu gabe (goian lantegietako irabazi-galderen laukian eman ditugunak albora utzita, esan nahi da):

Kontzeptuak	1910	1925	1940	1955	1970	1990
Sarrerak	52.966	156.748	973.292	1.278.173	5.050.909	39.775.602
Gastuak	58.635	184.659	942.201	1.249.664	5.410.133	44.389.119
Emaitzak	-5.669	-27.911	31.091	8.508	-330.124	-4.613.517

1990eko gastuetatik behartsuei, Probintziari eta Aseguruko aurreko urteetako atzerapen-ordainari dagozkienak kenduta daude hemengo datuetan

⁴⁶ Honela: 1910: %1,5; 1925: 3,66; 1940: ez da ageri; 1955: 0,46; 1970: 3,83; 1990: 3,34. Azken urte honetako Ikastaro eta Gogo-jardun bereziak gehituta, orotara % 5,15.

⁴⁷ Hauek dira datu zehatzak: 1910: % 1,3; 1925: 0,63; 1940: 2,5; 1955: 3,49; 1970: 2,10; 1990: 1,20. Gogora dezagun, bide batez, 1955ekoa Arantzazuko Jubileu-Urtea izan zela, eremu honetan urte berezia.

Kopuru hauetan guztietan (lehenagokoetan bezala dena pezeta nominaletan), hainbat xehetasunetan zalantzak izan ditugu (kontzeptuak beti argi ez zeudelako: Zergatik nahasi ote dira inoiz, adibidez, bidaietako gastuak tabakoarenarekin?). Dena den, historia honen lerro nagusienak ezagutzeko balio izan digute, eta horixe zen orrialde hauen xedea, besterik gabe.

5. ATZERA BEGIRATU BAT, ETA ONDORIOAK

Arantzazu erlijioso frantziskotarrek zaindutako Santutegia izan da, eta arduradun horiek ezarri dituzte bertan Fraidearte eta Santutegiko ekonomi irizpideak (izpiritu frantziskotarraren barruan: utopia begiratzuz eta errealitate helkor ez-utopikoari ere kasu eginez). Frantziskotarrek bi alde zaindu behar izan dituzte egindako lan eta bildutako limosnekin: Fraidearte bera eta erromesei eskaini behar zitzaizkien zerbitzuak (elizakoak bertakoak eta ingurukoak: ostatua, adibidez).

1878tik aurrera, bi garapen parekide izan ditu Santutegiak bizitza ekonomikoan, bata bere ondare-ondasunetan eta bestea bere antolamendu ekoizlean, lantegitan.

Ondare-ondasunak eskuratzea izan zen lehen buruhaustea, eta honek aurrea hartu zion lantegi ekoizleen eratzeari: aldi aldi eraiki edo berri ziren Eliza zaharra, Komentua(k), Seminarioa(k), eta Basilika Berria. Gerora baina batzuetan aldi bertsuan ere, garaien aukerei erantzunez, lantegi ekoizleek ere beren lekua hartu zuten: Komentu barruko hainbat lantegik (moldiztegia, argitalextea), eta kanpokoek (Denda, Ostatua, Gogartetxea, Gomiztegi). Garapen bikoitz honi esker, premia berriei erantzun ahal izan die Santutegiko ekonomiak.

Hastapen zaileko garaietan Komentuan eta Seminarioan lehen oinarriak jarri ondoren (1878-1915: lehen komentu-moduekin batera Seminario zaharra), finkapen urteak etorri ziren Komentuko eraikina osatuz (1916-1939: Zaindaritza, Kofradia, etab.). Artean, ekoizpen-sisteman apenas zegoen deus handirik (Inprimategia, Gogartetxea); gerraos-

tean, goraldi demografikoarekin batera, Arantzazu "berria" eraiki zen, eta produkzio-sistema berriua abiarazi (1940-1970: Gomiztegi, Basilika, Ostatu berriua). Belaun ezberdinek egin dute mende betean gaur egungo Arantzazu. 1970etik hona aro berri bat hasi zen Santutegian, komentu bizieran, fraidetasunean, eta ekonomian ere.

Herritarren onarpen, atxikimen eta laguntzari esker egin du aurrera beti Santutegiko ekonomiak, batez ere bere premia arruntetan: berriro diogu, gogora bedi limosnak hor izan duen lekua (modu ezberdinetako limosnak: etxez etxekoek, Meza-diruak, eliz-eskeak). Eta erabakiorra izan da fraideen beren esku-lana, sortuz joan diren lantegietan; pastoraltzako egitekoek, zuzenean behintzat, ekarpen txikiagoa egin dute ekonomian (kanpoko aitortzak, predikua, etab.).

Hemen aipatu ez diren gastu bereziek (erakuntza handietakoek batik bat) Herri-Erakundeen laguntza jaso izan dute, liburu honetan bertan ikus daitekeenaren arabera (Basilika Berria⁴⁸).

Santutegiaren autonomia ekonomikoa ukatu gabe, Arantzazuko Probintzia Frantziskotarraren presentzia ere gogorarazi behar da hemen. Garai zailetan bezala samurragoetan, Probintziako fraideek eta Erakundeak beren ekarria egin izan dute Arantzazun, erabili ditugun datuetan inoiz gutxitan agerian dagoena.

1834ko abuztuaren 18/19 hartan suteak guztiz kiskalita utzitako Santutegia hurrengo belaunek honelako baliabide ekonomikoen gain jaso zuten ostera ere: lehen eliza izanberriua, geroko Basilika ederra eta gerora ezagutu ditugun inguruko eraikinak. Giza borondateak, fededunen sinesmenak, eta, besteak beste, beroriei esker eratu den ekonomiak segurtatu dizkiote Santutegiari bere historia berri hau eta, espero dezagun, etorkizuna ere.

Idazlan honetarako hobetsi dugun dokumentazioaren gain idatzi da idazlan hau, eta lehen iker-saiakera bezala aurkezten dugu, gehiagoko asmo eta ahalbiderik gabe eginga izan baita. Dena den, ekonomi eremu honetan jakin-min denari lehen hurbilketa bat eginda utzi nahi izan diogu, egunen batean norbaitek osoago eta egokiagorik emango digulakoan.

⁴⁸ Ik. PAGOLA, M. (2001): "La construcción de la nueva Basílica", in: Intxausti (zuz.) 2001: 65-85, eta batez ere: 78-84. Ik., gainera, idazlan bera, zabalago, liburu honetan bertan: 182-224 or.

Eranskina

ARANTZAZUKO SARRERA-GASTUAK

(Hautatutako urteak: 1910, 1925, 1940, 1955, 1970, 1990)

SARRERAK 1910		GASTUAK 1910	
Estipendios de Misas	22.526	Alimentación	38.720
Predicación	4.890	Vestuario	2.735
Benedictas, Nocturnos	2.031	Salud	1.442
Limosnas	13.659	Suministros	1.247
Animales, cueros	2.702	Culto	800
Varios	1.669	Cultura	888
<i>Suma parcial-1</i>	47.477	Obras	2.702
Pensión de estudiantes	2.488	Vacas, cerdos	2.772
Venta objetos religiosos	3.000	Vajilla, ferretería	2.034
<i>Suma parcial-2</i>	5.488	Sirvientas (hospedería)	486
Suma total	52.965	Asientos, portes	779
		Gastos varios	2.131
		<i>Suma parcial-1</i>	56.736
		Objetos piadosos	1.898
		<i>Suma parcial</i>	1.898
		Suma total	58.634
SARRERAK 1925		GASTUAK 1925	
Estipendios de Misas	42.569	Alimentación	121.259
Predicación	5.660	Vestuario	19.051
Benedictas, Nocturnos	6.893	Salud	3.180
Limosnas	45.506	Suministros	1.607
Animales, cueros	5.567	Culto	1.171
Suministros Hospedería	32.845	Cultura	6.765
<i>Suma parcial-1</i>	139.040	Obras	7.187
Pensión de Estudiantes	17.706	Vacas, cerdos	2.006
<i>Suma parcial-2</i>	17.706	Vajilla, ferretería	5.202
Suma total	156.746	Sirvientas	1.431
		Automóvil	3.417
		Viajes	502
		Asientos, portes	1.323
		Tabaco, cerillas	762
		Varios	9.790
		Suma total	184.653
SARRERAK 1940		GASTUAK 1940	
Misas celebradas	396.137	Alimentación	741.427
Predicación	36.556	Salud	22.103
Benedictas, Nocturnos	44.149	Culto	23.710
Ministerios varios	35.682	Obras, mejoras	23.583
Peregrinaciones	19.772	Viajes	31.497
Postul., limosnas, regalos	440.986	Tabaco	20.490
<i>Suma parcial-1</i>	973.282	Varios	79.390
Colegio Seráfico	9.925	<i>Suma parcial-1</i>	942.200
Hospedería Arantzazu	232.864	Colegio Seráfico	434.814
<i>Suma parcial-2</i>	242.789	Hospedería Arantzazu	196.389
Total general	1.216.071	<i>Suma parcial-2</i>	631.203
		Suma total	1.573.403
		<i>No aparecen gast. cultura</i>	

SARRERAK 1955		GASTUAK 1955	
Estipendios de Misas	402.849	Alimentación	700.502
Servicios ministeriales	84.602	Vestuario	108.745
Predicación	47.906	Médicos, medicinas	33.875
Postulación, limosnas	268.330	Reparaciones	57.331
«Devoluc. Viajes; varios»	474.486	Suministros	12.528
<i>Suma parcial-1</i>	<i>1.278.173</i>	Culto	43.625
Colegio Seráfico	222.851	Cultura	5.856
Tienda	636.197	Vajilla, ferretería	55.520
Hospedería Arantzazu	1.172.643	Sirvientas, obreros	12.503
Editorial	4.095.632	Asientos, portes	26.300
Almacén	636.782	Correo	12.300
<i>Suma parcial-2</i>	<i>6.764.105</i>	Automóviles, gasolina	72.747
Suma total	8.042.278	Limpieza	16.300
		Viajes	35.662
		Varios	55.870
		<i>Suma parcial-1</i>	<i>1.249.664</i>
		Colegio Seráfico	577.210
		Tienda	531.374
		Hospedería Arantzazu	1.198.492
		Editorial	3.457.152
		Almacén	639.158
		<i>Suma parcial-2</i>	<i>6.403.386</i>
		Total	7.653.050
SARRERAK 1970		GASTUAK 1970	
Misas celebradas	1.207.230	Alimentación	1.742.363
Servicios ministeriales	367.055	Vestuario	269.720
Predicación	84.600	Médico, medicinas	449.053
Cuestación, limosnas	1.905.254	Suministros	1.176.550
Abono portes (Camión)	278.277	Culto	113.746
Serv.varios, devoluciones	732.682	Cultura	207.730
Ingresos varios	505.810	Obras y mejoras	179.841
<i>Suma parcial-1</i>	<i>5.080.908</i>	Máquinas, vehículos	358.277
Seminario Franciscano	2.083.014	Viajes, limpieza, etc.	912.863
Tienda	3.005.058	<i>Suma parcial-1</i>	<i>5.410.143</i>
Casa de Ejercicios	336.016	Seminario Franciscano	4.259.157
Caserío Gomiztegi	4.108.866	Tienda	2.187.056
Hospedería Arantzazu	7.592.416	Casa de Ejercicios	378.466
Ed. Arantzazu (libros, rev.)	6.231.402	Caserío Gomiztegi	3.765.009
<i>Suma parcial-2</i>	<i>23.356.772</i>	Hospedería Arantzazu	7.475.136
Suma total	28.437.680	Editorial Arantzazu	2.691.600
		<i>Suma parcial-2</i>	<i>20.756.424</i>
		Suma total	26.166.567

SARRERAK 1990	GASTUAK 1990
Pensiones jubilación	Alimentación
10.933.723	10.527.182
Colectas en la Basílica	Invitados 09.0990
10.868.050	525.670
Donativos	Menaje cocina
2.649.902	95.616
Misas celebradas	Automóviles
7.032.400	2.966.625
Actividades pastorales	Médicos y medicinas
3.131.075	1.397.050
Actividad cultural	Cuotas Reta y Seras (seguros)
1.612.668	4.993.281
Intereses bancarios	Biblioteca (libros, prensa)
1.408.872	1.744.110
Alimentos, hábitos, varios	Vestidos y calzado
1.726.718	1.318.733
Trabajos de limpieza (aseos públ.)	Limpieza (ropa incluida)
412.094	1.756.431
<i>Suma parcial-1</i>	Reparaciones varias
39.775.502	3.242.750
Hospedería Arantzazu	Suministros
95.741.993	7.046.848
Imprenta: revistas	Ordenadores, vídeo, cámara
36.052.363	1.422.321
Tienda	Cursillos, Ejercicios
22.864.163	945.500
Caserío Gomiztegi	Mobiliario
10.900.068	423.825
Seminario Franciscano	Gastos del culto
7.063.787	626.520
Editorial: libros	Viajes, Tabaco
5.530.311	2.310.523
Casa de Ejercicios	Intereses, Varios
12.491.219	3.046.134
<i>Suma parcial-2</i>	Ayuda a necesitados
190.643.904	677.000
Suma total	Contribución a Pensión Jubilación
230.419.406	220.460
	Contribución a Fondo Común Prov.
	6.855.217
	Hospedería Convento: obras
	21.918.100
	<i>Suma parcial-1</i>
	74.059.896
	Hospedería Arantzazu
	73.970.115
	Imprenta (revistas)
	21.099.151
	Tienda
	16.526.785
	Caserío Gomiztegi
	7.099.671
	Seminario Franciscano
	17.892.798
	Editorial (libros)
	3.375.933
	Casa de Ejercicios
	11.689.735
	<i>Suma parcial-2</i>
	151.654.188
	Suma total
	225.714.084